

## BETHA DITEQEYELA BECCATVEN. III

*Nola guerotic guerora gabiligal a bethaditequeyen  
beccathen neurria, eta offa contua.*

## C A P. IX.

Raiten du Salomonec, Iaincoare-  
 quin mintço dela. *Omnia in mensura Sap. II.*  
 & numero & pondere dispositi. Iau-  
 na, çure gouernua eta ordenamen-  
 dua, hain da handia, eta hain aitcina helt-  
 cen eta, hedatcen da, non munduko gauça  
 guztiac çontuan, pisuan eta neurrian egui-  
 ten baitituçu. *Pondus & statuta iudicia Domini Eccles. II.*  
 ni. Pisua eta balantça dira launaren lulga-  
 menduac eta sentenciac. Ezra guticeric, eta  
 ez berretceric : ezta soberaniaric eta ez esca-  
 siatic: ezta inorantciaric eta ez eznuen vste-  
 ric: Guztiac dacusqui, guztiac daquizqui eta  
 guztiac berac bere escuz, bere ordenamen-  
 duaren arauaz, behar beçala quidatceintu.  
 Hain chehero, bat hanaca, bere gainqui, eta *Gehes*  
 beretqui, daqui Iaincoac, gauça guztiex  
 betri, non gure buruco illeac ere, contatuac  
 baitadutça, eta ez paitçaiu batere, haren ia-  
 quin gabegaltcen eta ez erortcen. Are bada- *Luc. 12. &*  
 qui cenbat parabisuraco diren, eta bai cen- *21.*  
 bat ifermuraco diren ere. Eta harc berac da-

## TIZ BETAA DIREQVEYELA

*S. Thom. t. p. q. 2. §. 2.* qui eta ez bertcec. Baduguztien contua, eta coniu segura eta guerihua. Hala erraiten du San Thomasec. *Numerus praedestinationum in superna felicitate locandas, est certus & soli Deo cognitus.*

*Osez. 13.* Beccatuac, eta beccaturco obrac, baititugu gueure gueureac, eta gueroc eguinac. Halaco moldez, ecen erraiten baitu laincoac berac Oseas Propheta baithan. *Perditio tua ex te Israhel, tam modo in me, auxilium tuum.* Israel guiristinoa, galicea ceure ganic erremediatcea duçu eneganic. Beccatua çurea da, barcamendua da enea.

*August. lib. de vita Christiana tom. 9.*

Ordea guztiarequin ere badaqui laincoac gure beccatu guztien berria, eta contua; badaqui cenbat eguiñen ditugun, eta bai cenbatetara isio iguriñiko çaicun ere. Hala erraiten du San Agustinec. *Sed hoc magis semire nos conuenit, tandem unumquemque Dei patientia sustentari, quandiu nondim peccatorum suorum sermonum finemque compleuerit: quo completo eum illico percuti, nec illi ullam veniam iam reservari.* Iaquin deçagungauçabat, sentitcecoa baita, iguriñitcen dioela bat bederari laincoaren pacientiac, bere beccatu enurria betha arteño, contua compli arteño: eta hura complituz guero, ezte la guehiago iguriñitceric, eta ez barccamendu erdiesteric. Badaqui laincoac contua, cenbat beccatu eguiñen ditugun, eta bai cein handiac eta nola-

## BECCATVÈN NEVRRIA. 113

eoac ere. Eta vezten gaitu contu haren complicitza, neurriaren bethatzera eta mucuszera. Deliberatua daduca anarteraino iguriquitceco. Permititzen du ehun edober. *Geden.*  
 rehun beccatu egun ditzagun, edo gutiago edo guehiago, berac daqui cenbat, chedea ibenia daduca; eta eztu nahi hartaric aitcianago iragan gaitecin. *Circumdedi illud terminis meis,* lob.38. *& posui vellum & ostia;* *& dixi usque* *buc venies,* *& hic confringes tumentes fluctus tuos.* Inguratutu nuen itsasoak neure muguez eta mugarieez, ibeni neraurçan atx-Sarraillac; eta erran nioen, huneraifio, costaraiñio ethorriko çara, eta ez aitcinago, hemen gueldituko çara, hemen hautsicoituçu, ceure vhinac eta hola hantu vrguilluac. Itsasoak hasserre denean, bere gaitz aldiac dituenean, badi-rudi iretsi ñehat duela mundua. Orduan halako moldez iraquitzen du, non baldin bridarie ezpalu, manatua ezpalego, lur guztia estal balleçaque. Ordea Ieremias Propheta dioen beçala. *Posui arenam terminum mari, precepit sempernum, quod non prateribit, commonebuntur & non poterunt, & intumescent fluctus eius & non transibunt illud.* Badu itsasoak bere chedea, bere marra, bere mugaria eta cedarri jaquina, cein baita costa, eta costako sablea, harea eta legarra. Han hautsten da, han baratzen da, hangaitzago eta vrguilluago bada ere, ematzen eta sosegatzengoa da. *Ierem.5.*

## 114 BETHA DITEQVEYELA

Badaitzafoari, beçala ibeniderauca Iaincoac  
 guiconari ere, bere arauaz bere cedarria, sei-  
 fialatu dio noreraiño hel, bere chedea, bere  
 mugartia, eta marra. Eta nahisago badu ere,  
 eztiteque marra hartatic aitcinago iragan.  
 Enseia ahal diteque, desira ahal deçaque,  
 balsia alferric. Ceren guiconac libertatea na-  
 hi badu ògui eta nahi badu gaizqui eguiteco,  
 içan agatic ere, ezta ez handic seguitzen, bai  
 beccaruac librequi eta bere nahiz eguiten di-  
 tuela, baina ez nahiduen beçanbat beccatu  
 egunideçaqueyela, eta ez libertate hari nahid-  
 uen beçanbat, iraun araci ahal diaçayola.  
 Ceren libertate haren gaigfieco eta nabusi da  
 Iaincoa. Harc libertate hari eta haren iraupen-  
 nati, gutien vste duenean, bortcharic egun  
 gabe, vrz araci diaçayo, hertz eta traba, da-  
 raman bide gaixtoa. Azqui estendu edo so-  
 bera estendu, bere batez aitcinago. Eta hala  
 icussicoituçu iende thaillu batçuc, neurriaren  
 betharceaz, contu guti eguinic, abiadura han-  
 di batequin, beccatu guechiago eguitera abiat-  
 cen, eta erdurcen direla: eta haiu cinez, era  
 deliberatuqui, non iduritzen baitçaye, ecen  
 ia han direla, eta deusec ere, hara helteretic,  
 ecin guibela ditçaqueyela. Ordea icussico  
 dicutçu halaber, noiz eta gogoa cinezenic,  
 harran ibenia baitaducate, eta lasterrenic ba-  
 ito aci, orduan berean, edo eritasunez, edo  
 incontruz, edo estropuz, edo heriotceac atra-

## BECCATVEN NEVRRIA. 115.

patuz, bere beccatu eguiteco gogoarequin, bidatz-erditan guelditzen direla. Hala guertha-  
tu ceican erregue Pharaoni: Israeleko lemeen  
côtra, egun daiño baiño deliberamêdu hádia  
goarequin- cihoanean, erraiten çuela. *Perse- Exod. 5.*  
quar & comprehendam, dimidam spolia, implebi-  
sur anima mea, euaginabo gladium meum, interfici-  
et eos manus mea. Erdietzicoitut, atrapatu-  
coitur aspertuko natçaye, guztiac ezpataren  
ahotic iragantintut. Bada orduan berean,  
hunela mintço cencan, eta cihoanean, neur-  
ria betheceican, contua ossatu, eta complitu  
ceican, eta veruna beçala itsas, ondarrera e-  
roritic bere egunac accabatu ceitçan.

## § 1.

**I**Tsasoco vntciac, barcca handiac, anhitz  
daduca, carga hádia iasaité du. Erditaraiño  
betheagatic, itsas gaiñean dago. Hirur laurde-  
nac bethe agatic ere badabilla, oraíño ague-  
rida. Guztia betha dadinean, hondatzen,  
eta ondoratzen da, orduan estaltzen da. Ce-  
ren ezta, soberaniac gañiez eraguin eztiacaz-  
yonic, ezta bere neurria baiño guehiago da-  
ducayonic. Bada haur beror guertharcen ças-  
itçu, ceure beccatuengargarequin, cuii ere,  
Eguiten diturçu hogoy beccatu mortal, eta  
oraíño biciçara, iguriquiricen deratçu iainco-  
ac. Eguiten diturçu berrogoy, eta oraíño

**116      BETHA DITQVEYELA**

ere vezten çaitu. Eguiten ditutu hirurhogoy, eta guztiaréquin ere badu pacientzia, pairatzen derauzquitçu. Eguiten ditutu lauretan hogoy, eta orduan bethatzen da neurria, orduan mucorurcen da, orduan gaisiez egunice, vntcia ondara beçala, çu ere, infernuco çolara erotcen çara.

Ordea eztut ez, hunetan erran nahi, iguriqnitcen duela bethi iaincoac, lauretan hogoy beccatu eguiñ arteño : eztut erran nahi, ezteila an arteriaño neurria berthatzen, eta ez orduan ere, orduan berthatzen dela. Aitcitic nola asco baita beccatu mortal bat infernura ioaitreco, venturaz bada cebait, beccatu bat berri gatic ifernuan dagoenic, beccatu batez neurria bethe duenic. Ohoin batçuc, anhitz ohoinqueriaren buruan vrcatceintuzte, eta berriz bertce batçuc, bere hala lehenbicicoan dira attrapatuac. Hala guerthatzen çaye bada beccatu anhitzequin edo gutirequin ifernura ioaiten direney ere. Batçney iguriquitcen deraue laincoac luçato, eta bertce batçuey ez hanbat. Era cergatic ez ? Den beccatu mortalic tipienaren ere eguitarera ere, veldur garen amoreac gatic, hartçaz neurria betha ditequeyenaz guerozitic. Eta hala erraiten dudanean lauretan hogoy garren beccatuaz neurria berthatzen dela, orobat derraquet, lehenbicicoaz, bi garrenaz edo hirurgarenaz betha ditequeyela. Ceren nic comparacion

## BECCATVEN NEVRRIA. 117

hunetan , erran nahi dudana da , badela beccatuen neurribat , badela ezaitcina go iragaiteco marra bat , eta contubat . Eta lehenbicico beccatuaren eguitera ere bai , bainia guzt z ere handic harat , hurrenecoaren eguitera , behar dugula içan veldur , ceren hartçaz , lehenqz eguiñ eztena , neutria betha baititzeque .

Eta hunetaric athera ahaldeça quegu , eta iccas anhitz gauca . Lehenbicicq , cinez gatçançala , qe eta ni ere gordun gueure laungoicoari . Ceren venturaz anhitz baitago orrai ifernuan , guc orañocoan eguiñ dugun bainio beccatu gutiagorequin ; eta guc gueure acoraiño , guchi ago balira ere , Iaincoarequin batean , erremedia baititça quegu . Halaber , bi garrena , iccas ahaldeça quegu hunetaric , bethi ere behar dugula içan veldur , eta herabe beccatu eguitera , ceren ez paitaquigu ceniez cerratc den contua , lehenbicico eguiten dugunaz ala bi garrenaz . Eta guztien buruan iccas ahal deça quegu , eta athera hunetaric , ei hoqueria handia dela , guc gueure buruan daratmaguna , eta erraiten-dugunaz beccatu en vrzten eta obra onen eguiteen guero hasico garela . Ceren pensatu behar guenduque , badela beccatuen neurribat , contu iaquinbat , eta guc destarcen , era ordenarcen dugun guero hartara heldu gabe , contu hura compliditequeyela , eta neurria betha .

## 118      BETHA DITEQVEYELA

§. 2.

**E**raiten du Aristotelec, eta hari iarralquit. Arist. 2. Ecen çaitça bertce philosopho guztiac ere. ex anima *Omnia viventia, qua dicuntur natura constans a, cap. 4. text habent certum limitem sua quantitatis.* B circeen 4<sup>1</sup>. diren gauça guztiec, badute bere neurria bere handitasunean, eta bai itipitasunean ere. Guiçona ecin dateque, cigarra beçain itipi, eta ez cigarra ere, guiçona beçain handi. Eta nola bicitcen diren gauça guztiec baiture bere handitasunean, eta ttipitasunean bere pontua eta neurria, hala dute iraupencan ere bere dēbora. Dembora batetaraïño, iraun ahal deçaquete, eta ez guehiago : hādic harat guztiac dohaci, beheitituaz, ahituaz, eta bere indarrean flacatuaz. Animalia batçuec, guehi ago irauten dute, bertce batçuec bañio, eta bai çuhairzec ere. Ordea guztiec dute bere dembora iaquinbat, eta neurribat. Hala dute bada beccatuec, eta beccatoreec ere bere arauaz bere neurria, eta contua cēbatetaraïño hel eta bai dembora ere, noiz arteraiño iraun. Eta dembora hura complituz guero neurria bechez guero, eztu laiocoac guehiago iguritzen. Hala einaiten du adicera escrivitora. Esdr. 4. Sainduac, erraiten duenean. *Vade & intercap. 4. roga mulierem pregnantem, si quando implenerit no-*

## BECCATVEN NEVRRIA. 179

*uem menses suos , adhuc poterit matrix eius retinere partum in semetipsa ? Qoaz , eta galdu guioçu emazte içorrari , ea bederatci hilab betheac , bethez guero , eduqui ahaldeça queyenz haurra sablean ? ihardetfico deratçu , ezetz . Ez eta beraz laincoac ere , beccatuen neurria bethez guero , ecin daducayo , bere iusticiaren arauaz , bere colera aguertu gabe . Eta etra-  
iten badu ere Esaias Prophetac . *Expediat  
Dominus ut misereatur nostri . Iguriquitzen du  
laincoac gutxaz misericordia içaiteco ; adi-  
cenda , iguriquitc duela , baldin neurria bethe  
ezpada , dembora complitu ezpada . Hala  
erran eta egun ere çuen laincoac berac Noe-  
ren deimboran , vholde handi harçaz mundua  
hondatu çueenan . Impleta est terra iniquitate &  
ego disperdam eos cum terra . Bethe da lurragaixta  
queriaz , mucurutu da malicias , ezta beraz cer  
guehiago igurquiric , ditçagun guziac lurrarequin  
batean , gal eta honda , eta hala honda-  
tu cituen .**

Eta lurrarequin batean erraitendu *Disper-  
damus eos cum terra . Ceren lura guelditu bat . Glos-  
cen ere , Ordea' Glossac dioen beçala . Per lyranam  
salzedinem aquarum , ipsa terra peiorata est . cap 6 Genç .  
Vholde harçaz iguero lura ere mehatua ,  
eta flacatu guelditu cen . Pontu honestara  
ezta gaizqui heldu , San Matheo Euangeli-  
stac ibentzen duen comparacion bat , cei-*

Isai. 38:

Gene. 6:

Math. 13:

120

## BETHA DITEQEYELA

Netçaz frogatzen baita, beccatuetan beçala, obra onetan ere, neurria betha arteñio, eta çorhi arteñio, iguriquiten duela laincoac. Eta da comparaciona. Guiçon batec erein çuen bere landan hazi ona, ogvi bihi garbia. Baiña guero cenbait nahañecaric egoici çuen genetic hazi gaixtoa. Eta demborarequin batean hasi ciren, hazi biac, ona eta gaixtoa aguerzen. Aguerzu cirenean erran cioten, bere mühilec nabusiari. *Vis imus & colligimus ead launa*, çuc hazi ona eta garbia erein cenduen ecore landan eta alhortean, baiña badacus agu, on harezquin batean, soñtu dela gaixtoa ere. Nahi duçu bada goacin, eta gaixto hura, athera deçagun, vildeçagun? Non. Ez ihardesten deraue, ez tut nahi. *Sinite utraque recessere usque ad messem.* Igericaçue appurbat çaudete oraisio, luça eçaçue vzrataraino, vtz quitgue hazi biac, ona eta gaixtoa hazteria, handitcera, eta çorhicera: eta guero orduan ebaquico ditutçue guztiac, eta onac ongvi viliduric, eraçamaturic ailtchatuco, eta gaixtoac ere elccarganaric, sura egotcico ditutçue. Eeçuen nahi çorhi arteñio, bere sasoñera, eta mugara hel arteñio, nehorc vtquicitaran ez eta çorhituz guero ere gueldi citecin.

Hala eguitendu bada gure laincoac ere, hala onequin nola gaixoequin. Iguriquitzen deraueteguzticy çorhi arteñio, bere mugara, sasoñera, eta neurria hel arteñio. Eta guero orduan

## BECATVEN NEVRRIA. 121

orduan , onac bere loriaco ailechateintu, eta  
gaixtoac seculaco penetara egorzteintu,  
Fruituac vtzen diturcu ontcera , vimorecera,  
eta bere sasoñera heltcera: Hala vtzen ditu  
bada Iaincoac ere onac ontasunean, eta gaix-  
toac gaixtatasunean çorhitcera , eta neurria-  
ren bethatcera.

## § 3

**G**vee laungoitoac icussiric , iarticeit-  
Çala gaixtaqueriari iendeac , erran çuen  
bihoiz min handi batequin. *Talius dolore Gen.6.  
cordis insinclus.* Ceren berac nahi etçue-  
na , mynduko beccatuec , eraguiten baitce-  
raucaten. *Delebo hominem quem creavi à facie ter-  
re.* Neurc egun nuen guïçona , neurc dese-  
guinen dut , Khenduco dut lurraren gaiñeric.  
Eta hunetacorçat , deitu çuen. Noe ceritçan  
guïçon bat , cein , bera cortci garren , etcha-  
tiaz guztia , guerthatu baitcen on eta iuslu ,  
eta hari erran cionen. *Repleta est terra iniquitate.*  
Bethe da mundua beccatuz eta maliciaz,gai-  
ñiez egun hurrandu gaixtaqueriaz. Eta hala  
deliberatu dut guzrien , vholde batez dese-  
guitera eta hondatcerá. Ordea eman nahi de-  
rauer asti , eppe , termino eta espatio bicit-  
ceco , eta penitentzia eguiteco , ehun eta ho-  
goy vrthe. Eta bitarte hunetan çuc , erraiten-  
dio Noeri , bertceen ausarceco , eta ceute et-

## 122      BETHADITE QVEYELA

cheocoen salbatceco , eta halaber aniamalia fuerte guztietaric haciaren era arraçaren guelditceco , eguiñen duçu vntci bat , barcca handi bat , erran dengauçaco asco handi date- queyen beçalacoa . Era hala eguiñ ere quen . Eta hartan sarthu cirenac biciric salbatu , eta escapatu ciren eta ez bertceric .

Orai hemen behar da consideratu pontubat . Vntciaren eraguitaracoan . Erran cerauen Iaincoac , iguriquico cerauela ehun eta hogoy vrthez . Bainha baldin contua ongi atheratcen badugu , edireneng dugu , etceraüela iguriqui ehunez baicen . Ceren agueri da ecen , vntciarenedo barccaren eguiteco manua içan çueñean , bortz- etan ehun vrthe ci- tuela Noec , eta guero seyetañ ehunetara hel- du cenean , ethorri cela vholdea . Cet erran nahidu bada hunec ? Prometa iguriquico ce- rauola ehun eta hogoy vrthez , eta ez iguriqui ehunez baicen ? Non dira gañeracoac ? Cet murritzte da haur ? Cergatic eztu bere pro- mresa osloqui complitzen ? Ibardesten du San

*Chrysostom.* *Antequam implerentur anni pro- missi , uniuersale introduxit excidium , & hoc fuit sacra misericordia maximum indicium . Nam quo- niam vidit incurabiliter illos peccare , & non solum nihil ex inexcibili longanimitate sua proficere , sed & in crudeliter ulcera , propriea succidit tempus , ut ne maiori scilicet pena se obnoxios facerent . Egua da prometatu ciuuen yrtheac complitu*

## BECCATVEN NEVRRIA. 123

gabe,igorri çuen Iaincoac vholdea. Eta haur içatu cen misericordia sacratuaren seiñale handibat. Ceren nola i ecussi baitçuen, egunoro beccatu eguiten hari cirela, eta aitcinerat ere hala harico cirela, eta iguriquitçeaz, dembora guehiago emaitzeaz, proberchu baiño calte guehiago helduceyela, beccatuen çauriac gordintcenago, eta gaizcoacenago cirela, hobenduriago eguiten cirela, vrricalduriç, pena gutiago, ethorcequien amoreac gatic, gutitu cerauen dembora, eta laburru hogoy vrthez eman ceraue eppea eta promesa. Hunela i hardesten du San Crisostomoc. Eta arraçoin ona da haur. Baiña ez ni narrayon, gauçaren frogatceco. Hartaracotzat edireiten da bertcebat San Geronimo baithan etaene vster ez gaixtoa. Eta da arraçoina. Prometatu cerauen, iguriquico cerauela ehun eta hogoy vrthez, ez ordea iguriqui ehunez baicen. Ceren ehun eta hogoy vrthez eguin behartcituzten beccatuac, edo egnin behar etcituztenac, ehunez eguin baitcituzten, ehunez neurria bethe baitçuten. Eta noja neurria bethez guero, ezpaitzen cer guehiago iguriquiric: halatan, nola berac lehiazu baitciren beccatu eguiteta, eta neurriaren bethaccera, deliberatu çuen Iaincoac ere hey biciaten laburrcera, eta hogoy vrtheren demboraren gutitcera eta eppaitera.

Hunetaric athera ahal deçaquegu, behar-

I 2

Vide Hieron. de qu. Hebreis super hunc locum.

## 124 BETRA · DITEQVEYELA

guendu queyela, guehiago bicitcea gatic bedere, beccatu eguitetic guibelatu, era harian neurria bethatcetic escusatu. Halatan eraiten deraue Ieremias Prophetac Iuduey. *Quare facitis malum grande hoc contra animas vestras, ut interficiat ex vobis vir & mulier?* Ceu en buruon esfajac, Iaincoa gatic egui nahi ez-paduquecre, cergatic ceuen probetchua gatic, eta guehiago bicitcea gatic bedere, et-garete beccatu eguitetic beguitarcen? Eztaçusaüe, beccatu egniteaz, eta hequen contuaren complitceaz, bicia laburten duçuela? Eta halatan bertcela hillen cineten baño lehen, hiltcen çaretela? Ceren contua complituz guero, ezpaita guehiago bicitceric.

Prometatu cerauen gure Iaungoicoac Abrahani eta haren ondo coey, emanen ceruela Judeaco erresuma on hura. Ordea etcerauen, prometatu eta berehala eman. Eta cergatic ez? Ihardestendu Iaincoac berac. *Nec dum enim completa sunt iniquitates Amortheorum.* Ezteraueret emanen berehala, ceren ezpaitira orainio bethe eta complitu Amorteoen beccatuac, ceinec haitaducate herri hura. Hec neurria betha deçarenean, eta contua compli, orduan edequico derauet hey, eta emanen Abrahani eta haren ondo coey.

Etxuen iduriz hala egui Sodomaco equin eta Gomorraco equin: hec erran eta bercha-

*Genes. 15.*

## BECCATVEN NEVRRIA. 125

la. Guehiago iguriqui gabe , cerutic subat i .  
gorritic erre cituen. Ceren ia ordutorçaz ,  
neurria bethe baitçuten. Eta hunen gañean  
ercaiten du San Agustinec. *Quo exemplo mani- Vide Ave.  
feste instruimur singulos secundū peccatorum suorum de vita  
plenitudinem consumari , & tandem ut conuertantur Christiana  
sufficiens , quam din cumulum suorum , non habue-  
runt , delictorum , consumatum. Exemplo hunet-  
çaz emaiten çaicu aditcera , eta eracusten  
clarqui , bat bederark , bere beçcatuac bethe  
dituenean , bethatcen qaitçala bere egunaç  
ere ; dembora hartaraño iguriquitcen çaina-  
la , eta ez guehiago.*

Eta baldin orainocoan erran ditugungau-  
ça hauç guztioc eguiac badira , nola baitira  
eguiac : baldin Iaincoac delibératua badadu-  
ca iguriquitceco neurria betba arteño , eta  
ez guehiago. Certan pensatzen othe duçu  
çuc , orainocoan ere , buruan ille duçun ba-  
ño beçcatu guehiago eguin duçunorrec ? Cer  
daquiqu hurran lehenbicico eguinen duçun  
naz , çuc reure neurria betbatcen duçunz ?  
Contua complitcen duçunz ? Cer daquiqu  
lehenbicico eguinen duçun beçcatuaren be-  
guira dagoenz Iaincoa , cure egunen acca-  
batceco , eta mundutic atheratceco ? Con-  
sideratcecoa , eta betih ére gogoan eduquir-  
ceco , pontua dahaur. Bainaz çuc ponu hu-  
nez eta bertce hunelacoez ere , contu guia  
eguinic , ceure guero hartara laster eguiten-  
I

126

## BETHA DITEQYEYELA

duçu , eta bethiere guero onduco çarcia , eta çure neurria eztela oraino betheco , erraitenduçu .

Ordea cer içanenda , çure guero hura heldu gabe , çure beccatuen kontua bere kontura hel badadi ? eta çure bicia ere accaba badadi ?

Consideracino haur beror , bertceric gabe , asco behar li çateque , ez guchiago guerotic guerora ibiltceco : edo bai behintegat beccatü baren eguitera çohacinean , haren eguitetic ixtitceco eta guibelatececo . Ceren pensazu behar cenduque ecen , eguitera çoacin beccatun hura , dela venturaz , çure azquen beccatua , eta hartçaz çuc ceure neutria bethatzen duçula , ceren etçara segur .

Anhitz beccatu eguin duçu orainocoan , eta güztiarequin ero , vtzten çaitu oraino Iaincoac , iguriquicen derarçu . Beraz esperantza abalduqueçu , ezcuçula oraino neurriabethe . Ordea berha deçaqueçu , lehenbicico eguiñen duçunaz , beraz haren eguitetic , behar duçu beguiratu .

Eta hala bira iraganac iragan , hec ahalic eta hobequiena erremedia ditçagun , eta ajtinerat guchiago eguitetic ahalez beguir gaitecin . Bethiere pontu haur , neurriaren bethatceco peril haur , gogoan eduquiricen dugula . Eta bicircen garela , ez beccatuz eta gaixtaqueriaz , baitia ontasunez eta obra

## MISERICORDIAN FIDATV. 127

onez, neurria betheric, azquenean ceruko  
loria erdiets deçaquegun beçala.

*Ambiz valio duela Iaincoaren misericordiacz  
eta nola behar den harten fidatu.*

## C A P. X.

**F**raitendu San Thomasec. *Fiducia* S. Thom. 1.  
est spes reborata, ex aliqua firma ope- p. qu. 129.  
nione. Fidancia da esperantça bat ar. 6. in col-  
bortitztua, indarztatua, eta vitez po. & ad 3.  
ongui fincarua eta seguratu. Duçunean  
adisquide bat aberatsa, boheretsua, eta ceu-  
re eguiteco guztielan bethiere fin era leyal  
frogtatua : halacoaren hitza dirutçat hartzen-  
duçu, esquentcea, emaitza beçanbat çaitçu;  
haren promesetan, Kheinueran eta ate aye-  
ruetan ere, fidantzia handia daduça. Be-  
raz hunelatan arraçoiñequin eduquico dugu  
gucere fidantzia handia, eta esperantça be-  
roa, gueute Iaincoa baithan eta haren mi-  
sericordian. Ceren han edirenenditugu, arte  
abantaillatuqui, fidatceco, eta esperantça  
içaiteco, ahal diratequeyen segurantçaguz-  
tiac.

Lehenbicicoric, hura da gure adisquide,  
eta hain adisquide, non cerutic lurrera iaut-

## 128 HEHAR DELA IAINCOAREN

- Roma 5. firie , lurrean guregaric , are bere et sanguini-  
tue laric , bere bicia liberalqui eja volondres-  
qui eman baitçuen . Hala errait endu i ondone  
Pauloc . *Commendat Deus charitatem suam in no-  
bis , quoniam cum adhuc peccatores essemus , Cri-  
stus pro nobis mortuus est.*
- Psalmo 23. Halaber hura da aberats eta botherettu .  
Ceren cerua eta lurrta , ceruco , eta lurreco  
gauça guztiегuin bereac , berac eguinac , eta  
bere escuco baititu . *Domini est terra & pleni-  
tudo eius . Eguin biteci , erraiteaz , eguiñ ci-  
tuen , eta deseguin biteci erraiteaz , dese-  
guin ditçaque . Ipse dixit & facta sunt . Ezta  
ibiltceric eta ez higuitceric , ezta irauteric  
eta ez harshartceric , haren nahię eta voron-  
dateagabe . In ipso enim vivimus , mouemur & fu-  
mus .*
- Ecole. 1. Bada fintasunaz , bere hitzaren leyal , eta  
jabe içaiteaz , ezta cer erranic . *Respicie filij  
nationes hominum , & scitote , quia nullus speravit  
in Domino , & confusus est . Quis enim permanens  
in mandatis eius & derelictus est ? Aut quis inno-  
cabit eum , & dexpexit illum ? Behaeçaque imun-  
duco ienderacino guztietara , eta edirenent  
duçue , ezela egun daiño , iauna baithan si-  
datu denic galdu , eta ez bere behartean , be-  
harden bidean , hura behartu duenic , bere  
behár duena gabe , guelditu . Halatan errai-  
tendu erregue Davitec . Iacta super Dominum  
curram tuam , & ipsese emiserit . Nahi baduçu*
- Psalmo 54.

## MISERIDIAN FIDATY. 129

çutçaz ongvi dohan, eta ongvi ilerqui dadin, ibeintçatçu ceure esperantça, fidantça, eta ardura guztiac Iaincoa baithan, haren gai-fiera egotz itçatçu. Ceren munduco iduriz erremedioric eziuten eguitrecoey ere harc edirenен deraue eta emanen buru. Badirudi ecen hunen aditcera emaitea gatic anhitz etan ere vtzten gaituela gueute laungoicoac. Hersturatan iartcera, eguitrecoetan fartcera, eta cerutic baicen, erremedioric ecin du quegun beçalaco pontura, ethortterea: lurraz, eta lurreco habe, iabe, eta fabore-guztiez etfisuric, cerura eta cerucoetara, fidantcia handirequin lasler daguigun amoreac gatic. Hala erraiten du San Chrisostomoc.

*Quando res in maximam inciderit inepiam, tunc Chrisosto. in maxime spera; tunc enim Deus maximam suam homi. 17 offendit parentiam: non à primordio, sed quando res fuerit plane desperata. Eguitrecoac eguitreco- tan direnean, galdugordean dabilçanean, orduan educaçü çuc egun daifio daifio espe- rantça guehiago. Ceren orduan, eracutisco- du Iaincoac, bere bothere handia: ez eguitre- coaren hastean, baifia bai premiaric handie- nean, eta nehondic erremedioric eztela, di- rudienean. Ceren orduan da Iaincoaren fa- borearen eta laguntçaren fasoiña eta punta- da. Beraz orduan behar duçu çuc Iaincoa baithan, eta haren misericordian, fidatu, eta esperantçatu.*

## 130 BEHAR DELA IAINCOAREN

Eta hala eguiten duçun demboran, eztu ez iaincoae faltatcen, Aitcitic bere ontasunaren misericordiaren, eta boherearen era-custeagatic, orduan laster eguiten du, orduan heltecen çairçu, orduan guc pensatu ere ercenduqueyen bidetic, erremedio igortzen deratçu. Iaquin deçaçun, bertce erremedio guztiaç ahitu direnean, harenac hasten direla. Iaquindeçaçun bertce guztiac deus ecin egui-nez vtcı çaitoztenean, harbadaidiqueyela, eta orduan faborascan çaituela.

Hala faboratu çuen Ionas Propheta hirur eginez eta gauez baleac sabelean biciric era-bili çueanean. Hala faboratu eta beguiratu ci-tuen Israeleco seimeac ere itsas-bazterrean, Erregue Pharaonec alde guztietaric inguratuaç, eta ecin ihesic ceidiqueten beçala, vitez hartuac eta atrapatuaç cedutçanean.

Hala faboratu çuen Susanna Legue çaharreco emazte prestu hura ere, bere senharraz bert-cerequin içan cela, falsoqui accusaturic, harriz iocarcera, ceramatenean. Finean hala faboratu çuen Daniel Propheta ere, lehoinen artetic eta boheretic ossoric eta salboric athera çueanean.

Norc errançuqueyen, guiçon bat hirur eginez eta gauez balearen sabelean ibiliz guero, biciric leihorrera ilquitco cela? Norc finhetsi çuqueyen Israeleco seimeac, itsas bazterrean, hain herristra handian içan cirenac, Phara-

## MISERICORDIAN FIDATV 131

nen escuetatic içcurico cirela? Eta Pharaon bera bere bohere guztia'requin ichoric han gueldituko cela? Norc pensatu çuqueyen Susanna gaixtotçat, condenaturic, plaçra galteco atheraz guero, hanbat ohorere-quin ercheratbihurtuko cela, eta haren accufatçailleac, era condenatçailleac, haren lec-cuan conde natuac, eta iusticiatiac icanen ci-rela? Finean nori gogora citçaicacion Daniel beçalacoa, lehoin-gose-minduec bere me-nean, era atçaparren artean eduquiz guero, deseguingabe, eta iretsi gabe vticico çutela? Hauc dira Iaincoaren iníracuilluac, Iaincoac berac eguin ahalcitçaqueyenenac, eta ez bert-cec. Eta eguiò cituen iende hequen alditan. Ceren hec herstura hetan cirenean, bere espe-rantça guztia, fidantcia handirequin, Iaincoa baithan ibeni baitçuten. Hala ibeni gabez, Israeleco seme Egipotic iltqui cirenataric, et-ciren losue, eta Caleph baicen, herri prome-tatuan sartchu. Ceren guztien artetic, hec biec bai, baiña ezpaïtçuen bertcec, Iaincoaren promesetan, eta erranetan, beharcen es-perantca, finheñtea, eta fidantcia eduqui.

## §. I.

**A** Biatu cen egun batez Londone Petri, itsaz gaiñean, Iesu Cristo bere nabusia gana. Eta abiatu cen bere hala oinez, venc-

## 132 BEHAR DELA IAINCOAREN

citic, eta chaluparic edo batelic gabe, leihor-  
rean içan bailliz beçala, fidantzia handi bate-  
quin, esperantça segur batequin, bere Iainco  
nabusia gana, cihoanaz gueroztic, haren fa-  
borearequin batean, itsasoac iasanen çuela,  
etxela ithoco, eta ez hondatuco. Era etxen  
ez enganatu. Ceren fidantzia harc irann ce-  
raucan bitartean ialan çuen itsasoac, etcen on-  
dora, leihorrean begain segurqui, eta gogort-  
qui, fincatcen cituen oinac. Bañia guero  
haicebat iaiquiric, itsasoa handitzen, eta has-  
seretzen hafi cenean, hafi cen halaber londone  
Pertiere, icitzen, iccaratzen, dudatzan, es-  
perantçaren, eta fidantziaren galtzen. Era  
nola baitcihoan dudatuaz, eta fidantziaren  
galduaz, hala cihoan, itsasoan barrena ere  
larruaz, estaliatz, eta hondatuaz: halako  
moldez, ecen azquenean, guztiz honda erce-  
din, bere nabusiac exzua goiti eduquitceco,  
einan behar içatu baitceraucan, erraiten cio-  
ela. *Modica fidei quare dubitas?* Ha fede  
appurretacoa, fidantzia gutitacoa, cergatik  
dudatu duc? Cergatik ezaiz leheneco go-  
goan, eta sinhestean fin egotu? Fidantzia  
içan çuen bitartean, ongi ioan ceican, or-  
quan iasan çuen itsasoac. Bañia fidantzia  
hura faltatu ceicanean, faltatu ceican itsasoari  
ere, iasaiteco eta sostengatceco indarra, eta  
bothera. Halatan erraiten du erregue Da-  
uitec. *Qui confidunt in Domino sicut mons Sion.*

Math. 14.

## MISERICORDIAN FIDATV. 133

Iauna baithan fidatcen direnac, S ongo oihana , eta mendia beçala içanen dira: hura beçain fermo , fintco , segur , eta bortitz . Beraz hunelatan anhitz valiodu esperantçac indar handia du fidantciac hain handia ecen baitirudi,asco içanendela fidantcia hura bera, bat bederaren,egoitecoran denean,eta guztiz ere bere azquen finean gaiptoago bada ere, salbatceco , eta bide onean ibentceco. Ez horrelacoric. Hala iduriagatic , ezta hala, ezta fidantcia bera asco içanen. Ceren e-guiada, anhitz valio du fidantciac,indar handia du esperantçac. Ordea aditcen dela neurri, soberania gabe. Ceren soberania guztiac dira gaixto, hunen ondoco capituluan aguerico den beçala

*Iaincoaren misericordian fidaturic ez tala penitencia egnitea guero co uci behar.*

## C A P. II.

 Rraiten du San Agustinec, Iaincoaren misericordian, sobera fidatcen direnez, mintço dela, erraiten dutela halacoec. Misericordios da Iaincoa bihotz-bera , amorioz , eta ontasunez behe; beraz eztugu cer lehiaturik obra onen eguitera. Ceren berdin ezta deuseñ perilic,

Vide Aug  
de vera &  
falsa panita  
cap 4.  
tom 4.

## 134 EZ TELA IAINCOAREN MISERICOR

oro bat dabihar, oro bat da gueio. Ahaldu-  
quegu esperançea, fidantza, eta segurantz  
bicitze lucea emanen deracula; eta noiz nahi  
den; çahartcean, eta ate hiltceracoan ere,  
gueure beccatu guztiac barccatuco derauz-  
quigula. Ceren hain gauja onac misericor  
diosac, bihotz-berac, eta, amoltuaac, ézlia-  
quitque bercela egiteu, ezliaquitque ne-  
horri gaitzic emaiten.

Gure gatic cerutic lurterá iautsi cen; gure  
gatic bicia emá çuen, gorpurzeco odol guztia  
isuri çuen: eta odol hartçaz, bere aitaren, eta  
gure arteco irabua, eta eraigoa khenduric,  
beccatuaren corra ossoqui iusticiaren arauaz  
pagaturie, eta gathibutasunetic ere atheraric  
libertatean ibeni guinituen. Eta Iaincoac  
hunelacó gauçaric eguin baiño lehen, legue  
çaharrean ere, gaixtoac berac condenateen  
ciren eta ez berceric. Beraz orai eztira gaix-  
to guztiac ere condenateen, edo gaixtoac er-  
raxqui ontcen dira. Ceren berecela cer diffe-  
rentzia liçateque leheneco demboratik hune-  
taraz? Edi cer probetchu guenduque guc,  
Iaincoaren mundu huneran ibiliaz, eta pe-  
natuaz? Eta Iaincoac berac erran baquen ere.  
*Muli sunt vocati, pauci vero electi.* Anhitz  
direla deituac, baina gutiac hautatuac: har-  
gatic eztugu guc guiristinoc, cer icituric.  
Ceren guiristinoric baien ezta salbatzen, eta  
gutiac dira guiristinoac, guiristino eztirenen

## DIAN SOBERA FIDATV BEHAR 135

aldean. Eta hala erraiten denean anhitz direla deituaç , eta gutiac hautatuac, aditzen da Ientilac , Maituac , Turcoac, Iuduac Luterac, eta munduko hertze guztiac direla doituac Baiña gutiac , guiristinoac berac hautatua , eta ez bertcoric.

Hunela dio san Augustinec, erraiten dutela iende suerte harçuec. Baiña parteric guehienean erraiten dute gaizqui , eta gaixtoqui. Minçatce molde haut , gure etsai gaixtoaren búruan pensatua da , eta handic ilçquia. Ceren orai , Iaungoicac heriotce errecibituz güero , erraz ago bada ere salbatza , eta becatuetaric il quircea lehen baino. Ordea orai ere ilçqui behar da, ezta erraztasün haren esperantçan becatututan egon behar.

Nola etsai gaixtoac , gure laincoari berari , temploaren gainera tentatzera eramá cuenan , erran baitcioen. *Mitte te deorsum* Egotz Mathi. 4. ceçala handic behera bere burua ; Ceren berdin ainguiruec iasanen çurela , min haricetic beguiratuco çurela. Hala erraiten deratçu çuri ere orai. Egotz açu ceure burua goigoan dara billaqun beccatu horretan , obra eçacu , ceure desira compli eçaçu , etçaitçala , deusec ere guibela. Ceren berdin nola Iaincoa baita hain on , eta misericordios , etçaitçu vrriquituco , etçaitçu calteric ethorrico. Çure gatic bicia eman çuenac , hanbat penz eta trabailluiragan çuenac , czuez , hec guz-

**136 EZTELA IAINCOAREN MISERICOR**

tiac, alfer guertha ditecin, nahico, erçaitu galccera vtcico. Egotz eçaçu beraz ceure burua, eguiu beccatu, fida çaitci, etçarela deusen veldur.

Haur da deabruaren hitzuntza, haren es-colan iracurtua, han ereinua, eta handic banta-tua. Iaincoaren misericordiatic, ontafune-tic, eta passione sainduaren meritutic, eta valiofasunetic, nahi duçu hartu occasino, eta ausartcia, beccatueguiteco, eta beccatu-tan egoiteco. Hainda nislustasun, eta itsuta-fun handia, eta iende galduen contua haur, ecen gure falbarçaillea arrenkuratu ezpacen ere, bere heriotze penatuaz, eta desohorez-coaz, arrenkuratu, eta ser ricorru baitcen bide

Psal. 128. gabe hunerçaz, erraiten çuela. *Sprā dorsum meum fabricauerant peccatores, prolongauerunt iniquitatem suam.* Ene sorbalden gañean e-guin quten egut beccatoreec, han bere gaixta queria, hedatu, luçatu, eta çabaldu çuten. Erran nahi du. Gaixtoec bere gaixiaquerien eguiteco, eta hetan luçaro egoiteco, hartcen dituzee cimendurçat, eta occasinorçat, nic neure sorbaldeen gañean, errecibitu nituen açoteac, colpeac, penac, eta oñhaceac. Eta hetan fidaturic, hetan esperantçaturic eta contu eguinic, berdin nic hequen gatic pagatu nuela, ausartcen dira beccatu egui-tera, eta beccatutan egoitera, erraiten dutela. Misericordios da Iaincoa, maite gai tu, on-

## DIAN SOBERA FIDATV BEHAR 137

derizcu , bereac bere odolaz erosiac gaitu,  
men menera gaitecinean , eztiaçagu falta:  
beraz hardeçaquegu escu , eta licentia cen-  
bait beccaturen eguitoco Erran beharda  
misericordios dela laincoa , hunelaco ahapal,  
diac , hunein itilisiac pairatzen dituenean.

## §. I.

**S**AN Basilioe bertce hitz cuntea batez usat-  
cendu , gauça hunetçaz mintço denean,  
erraiten duela. *Nam & ille misericordiam cum  
tudito exhibet , qui in pondere , numero & mensura  
admetitur cuiusque merita & appendit.* Ezta  
dilla nehor Iamcoaren misericordian sobera  
fida. Ceren nola laungoicoac gure obra guz-  
tiac , contuan pisuan , eta neurrian , contatzen  
pisatzen , eta neurtecn baititu : hala bere mi-  
sericordiaz ere , contuz , pisuz , eta neurriz ,  
iusticiaren arauaz usatzen du. *Mel innuenisti Pro. 25  
comede quod sufficit tibi , ne forte satiatus enomas  
illud.* Dio Spiritu Sainduac. Ediren duçü  
eztia , ianeçäcu bada neurriz , asco duçun be-  
cain bertce , eta ez guehi ago asse .eguiric , ok-  
ha eztaguiçun , ahotic bibur ezteçägun.

Basi. Hom  
super psal  
32.

Iusticia minda , eta garratz , eta misericor-  
dia goço eta eztia. Ordea eztii hartaric , eztii  
icai agatik , eztia sobera Ian behar , eztia misé-  
ricordiaren eztitasunean fidaturic , beccatüric  
eguin behar. Geten halac eguita , eztia sobera

K

## 138 EZTELAIAINCOAREN MISERICOR

iatega da.

*Eccles. 5.- Ne dicas miseratione Dei magna est, multitudinis peccatorum meorum miserebuntur: misericordia enim & ira cito ab illo proximant.* Ezterraçula misericordios dela Iaincoa , eta ceure beccatu guziac barccatuco derauz quitçula. Ceren Misericordia eta iusticia hurbil dagotça Iaincoati , eta elccarri , eta iusticiac beccatoretara daduca beguia. Misericordiaren eztitasunari behatzen dioçun beçala, behatu behat dioçu iusticiaren garratzafunari ere. Ceren Iaincoa hain da iusticiati nola misericordios. Misericordia , eta iusticia berdin dira pisuan,berdin dira balantçan.

*S. Tho. 22.  
q. 21. ar. 2.* Eguna da San Thomasec dioen beçala. *Magis proprium est Deo miserere & parcere quam punire, propter eius bonitatem infinitam, illud enim secundum se Deo conuenit, hoc autem secundum nostra peccata.* Placent ago , eta laquet ago çonica Iaincoati misericordia , iusticia baiño , eta bai barccatcea ere , gaztigatcea baiño. Eta halatan vlatcen du anhitzetan ere bere mitericordiaz, guc mereci gaberic , bere ontasuna gatic bera gatic ; baina ez iusticiaz , eztu behin ere vlatcen,guc lehenic gueure beccatuez hartara behartu gabe. Ordea içaiteaz denaz beçanbatean , bada Iaincoa baithan hanbat iusticia nola misericordia : Nola aguerico baita , bertce munduan, hemengo dembora misericordiazco haur itagan dadinean. Harga-

## DIAN SOBERA FIDATV BEHAR 139

tic erraiten du Propheta Davitec. *Miserere Psalmus te cordiam et iustitiam canabo tibi Domine.* Iau- na , misericordia , eta inticia cantatuco dea rauzquitent , biac berdin , hain ongui bata nola bertcea.

Mistricordiaz soilqui , eta baccartie , iusticiaz conturic equin gabe , mintço denac , eztaqui cer mintço den , ezru halacoac iusticiazen handitasuna iccusten. Eta iccusazu nola eztuen iccuisten. Quc dioçu misericordios dela Iaincoa , eta ongui dioçu. Bainha çuc Iaincoa misericordios dela dioçunorrec , aditu behar ditutçu appurhat iusticiaren cornuae eta colpeac ere , hecadituric fidantzia erhoac , vtz ditçatçun amoreac gatic.

## § 3.

**I**VÍSTICIAREN LEHENBICICO COLPEA , ETA DESARRA İÇAN CEN , GOITIAN , CERUCO AINGIROETAN Luciferen , eta haren lagunen gainean. Ceruco Ainguiruric ederrena , abantaillatuena , eta Iainoaren adizquideric handiena , egotci quen iusticiac , vrguillutasuneco beccatu batzen gatic , secula singabecorçat , infelnuco peneetara. Eta Ainguitu guztien lehana , aicindaria , eta aguintaria , egui cen Deabru , eta Deabru guztien buruçagui , quidoin , eta capitain. Cen ederrena , egui cen , irguientz bere gogarena gaizquierrie. Onhetsienda ,

## 140 EZ TELA IAINCOAREN MISEIRCOR-

Ibai. 14. gaitzetsienie; eta gorena, beherenic. Halako  
huertez non Esaiaz Prophetac hain iauzzen  
hadiaz miretsric, galdeguiten baitio lucifer  
berari. *Quomodo cecidisti Lucifer qui mané ori-  
ebaris? Nola errori cinen lucifer?* Nola  
erori cinen artigarra, goicean goiz, oillari-  
tean sorteen, eta ilquitzen ohi cinena? Hain  
gora ceneñdecina? Handia eta ici garria içan-  
cen, Ceruan iusticiac egun çuen colpe hura.

Bainha egun çuen lurrean ere berrce bat,  
ez bere arauaz atseguinagoa, baldin erremem-  
dioric ordenatu ez palitzcaica, cein banta Ada-  
nen beccatuari eman ceican gaztigua. Ce-  
ruan luciferrec berac bedere egun çuen bec-  
catu; eta ezta miretsreco, nor bere beccatu  
gatic, penatcea. Bainha lurrean bertceren  
beccatu gatic, Adenena gatic, haren ondo-  
co guztiac, ate forthu baino lehen, bere ama-  
ren sabelean pitzten diren pontuan, diren  
beccatore, eta hobenduri: eta hanbat vrthe-  
ren buruan ezaquion, ahantz laincoari, bec-  
catu hura, porc eztu miretsico? Cer ahal  
dateque iusticia bortitz agoric?

Misericordiosda Iaincoa, eta bere miseri-  
cordia guztiarequin, behadagoca ifernuan  
dagoen bat: iccuisten du, eta iccuiscio du,  
nola milla vrthez, eta hamar millaz penatzen  
den. Eta guztiarequin ere, hala iccuissi aga-  
tic ere, han bere leccuan vtzten du. Erçaca  
bat ere bihotzic hautsten:erçaca bat ere hala

## SOBERA FIDATV BEHAR. 141

dagoē on-beharra vrricaltcē. Aitcitic atseguiñ haricen du, ceren hala penatcen den, eta na-hi du pena dadin, eta are handic ilquitceco, esperançaric gabe pena dadin. Gogortasunaren handia, Iusticiaren bortitzza. Çuc dū oçu misericordios dela Iaincoa. Baiña hume-tan badirudi, iusticiati go dela; eta iusticiac garait-cen duela misericordia. Eta arraçoi-nequin dirudi hala.

Ceren ezpaña bertce munduan içanen ga-ixtoentçat misericordiaric.

Misericordios da Iaincoa, baiña erran behar da iusticiati ere badela. Ceren munduari barcaccerā, ecin deusec ere balacatu quen, eta ez amortoz, bere semearen heriotceac ba-icen.

Misericordios da Iaincoa, eta guztiarequin ere Noeren demboran, çortiç presunaz bertce guztiac, vholde batez hondatu, eta accabatu cituen. Halaber Sodoma, eta Gomorra inguruneco bertce hiri batçequin, Subat cerutic igorriric, erre cituen. Halaber Datan, eta Abiron, lurrac bere lagunequin iretsi cituen. Eta orduā hec guztiac ifernura ciren. Eta orai ere ifernuratzen dira guiristino eztirrenac. Eta veldur naiz guiristinoetaric ere, guehienec, bide hora bera hartzen duten. Eta erraiten denean, anhitz direla deituac, eta gutiac hautatuac, guiristinoez ere orobat aditzen den. Ceren non da guiristinoric, guiri-

## 142 EZTELA IAINCOAREN MISERICOR.

Stino beçala bieitzen denic? Behar den bi-dean Iaincoa laudatzen, eta cerbitzatzen duenic? Haren manamendu sainduac beguiratzen diruenic? Edo bere nahicunde gaixto-baten complicetze, Iaincoa gatic guibelatzzen denic? Otheda munduan bat ere halacoric?

*harri precia  
tuequin.  
Adizcera  
emaitza ga-  
tic*

Bai bada cenbait, zeren eliza egin dateque gabe. Ordea guti. Eta halatan etsitura sainduan, comparatzen dira guiristino onac, harri preciatu beçala, guiristino on ere guti dela, batac beçain bertzeac, direla gaitz edireiten. Eta nola bertsce harrietaric baita, preciatuetaric baiño franco ago; hala dela halaber condonatuetaric ere sa batueraric baiño guehiago. Solomonec dioen beçala *Sentiorum infinitus est numerus.* Erroen kontua infinitu da, infinituquianhitz condonatzen da.

Bada baldin anhitz condonatzen bada, are guiristinoetaric ere, cergatik çu ere, guiristino içan agatik ere, etxara veldur içanen condonatuetaric bat guertha çaitecin? Oraingo-coan, anhitz egotzi du Iaincoac ifernura, cergatik bada erçaitu çu ere egotzico, baldin egotzi dituen hec beçala bicitzen baçara? Visteduğu çureççat legue berribat iarrico dela Vste diçu, Iaincoa han goitian, çu gabe, ecin iragan ditequeyela? Edo çu ez haratceaz beré loriatic galduco duela? Cer burupe, cer priuilegio edo abantail duçu çuc orai, ifernuan daudenee bere demboran çuten baiño

## DIAN SOBERA FIDATV BEHAR. 143

guehiago, baldin hec beçala bicicen baçara, ez  
hec beçala haratceco, edo hádic escapatceco.  
Eta baldin Iaincoare misericordiā fidatcē ba-  
çara, eztuçu vste, orai ifernuan diren hec ere,  
bere demboran fidatcen cirela ? Iaquiç u ecen  
misericordiac iustuey loria beçala, iusticiac  
ere gaixtoey ifernua emaiten deraucla.

## S 3.

**C**Eré Iaicoa dē bihorz bera, eta misericor-  
dios, ezta ez hunetaric harty behar occa-  
finoric eta ez escudácciaric beccatu guehiago  
eguiteco. Ceren haut liçateque, cótra-poçoi-  
naren, poçoin eguitea : Iaincoaren misericor-  
diaz, eta ontasunaz contrara vfatcea : eta bai  
misericordiaric ezten leccuan ere, oihen per-  
matceco, petilean iartcea. Badira bilerat  
batçuc, begui-ordethaillu batçuc, ceñiec gau-  
çac diren baiño handiago, iduri aracitcen  
baititzute. Eta guertha ditequeyen casua da  
halaco biserequin çubi baretaric iragaiten  
çarela, çubia den baiño handiago idurituric,  
eta çubiric ezten leccuan oihac emanic, eror  
baitcindezque çubi azpico hosinera, eta han-  
jho, eta honda. Bad acerueo loriara iragai-  
tego çubia, misericordia da : eta baldin mise-  
ricordiareñ çubi hunetaric, iragan nahi badu-  
çu çuc, aufartqui egui, fidatuqui egui, espe-  
rança erho baten biserac iauntcitic, eta idu-

## K 4

## 144 EZ FELA IAINCOAREN MISERICORD,

rituric ecen ceren çaren guiristino, eta Iaincoa ere den misericordios, hargatic bera gatic ere, salbatuco çarela, engana ahal sindezque eta misericordiaren çubiric ezien leccuan, esperantçaren ojifac ibeniric, iusticiaren hosinean eror ahal sindezque. Ceren Iaincoaren misericordia infinituqui handi içan agatic, ezta ez aditcen, eta ez handic seguitcen handitasun harc çuri, beccatu eguitoco occasio-

August. in noric, etman behar deratçula. *Non sic est Deus*  
psalm. 39. *misericors, ut sit innatus.* Dio San Augustin  
nec. Ezta Iaincoa halaco moldez misericordios non iusticiari bide gaberic eguin diaçon.

August. in *Puniamus nostra peccata si querimus misericordiam Dei.*  
psalm. 52. *Nom potest Deus misereri omnium operantium ini-  
quitatem, quasi blandiens peccatis & non erradi-  
cans peccata.* Gaztiga ditçagun gueure beccatuac, daguigun herçaz penitencia, baldin nahi badugu, erdieski Iaincoaren misericordia. Cerē Iaincoa ecin barccadiaio beccatoreari, beccatutan dagoefio, hetan atseguiin hartcen duefio, heretic apartarcera delibera artefio. Ezta Iaincoaren misericordia hain aitcina helteen, eta ez hedatcen. Eta ez hedatce haur, gauçaren ecinqiç netic helduda eta ez misericordiaren escafasunetic. Ezta erraiten misericordios dela Iaincoa, ceren beccatutan dabillanari, hala dabillaino, eta ilbitceco gogo duefio, lausengaien, eta

## SOBERA FIDATV BEHAR. 145

barccateen dioen. Bainia erraiten da misericordios dela, ceren bere beccatuac behar den bidean vtciric, beharden bidean ethorcen çainaçanari, eta bere ahala eguiten duenari, ezpaitio saltatzen, eta ez barccamenduric, vecatzen. Eta alfo dahaur eta hunela eguitea misericordios içaiteco.

Ençuten duçunean, bihotz bera eta misericordios dela Iaincoa, atseguiñ hartzen duçu, eta ençunagatik, gairiz, gogor eta iusticiati ere badela, eztuçu conturic eguiten. Bada escritura sainduan, Iaincoaç prometazcen dituen fabore handi, ezti, goço, misericordiazco hec, iustuentçat, ongi, artez, eta prestuqui, bicitzen direnenentçat dira: eta mehatchuac, Kheiñadurac, iusticiaren garratzafunac eta gaztiguac gaixtoentçat, çure eta çu beçalacoentçat, Cer erhoqueria da bada haur, çuretcat diren mehatchuez, eta gaztiguez eztagiçun conturic, eta çuretgat eztiren misericordiazco solhasez har deçagun atseguiñ? Misericordia iustuey, çu ez beçalacoey dagore. Eztuçu çuc, beccatuñ gaudeinõ, harten parteric, eta ez iccusquicunic: eztuçu orduan Iaincoa misericordios dela, ençunagatik, cer bozturic. Ceren orduan, iusticia bai, bainia misericordia, eta çurequin minicço, eztar ordua çure. Aparta çaité beçcatutic era içanen da çure; apartaçaité beçcatutic era içanen duçu parte. Bai-

### 146 EZTELA IAINCOAREN MISERICOR

nia anarteraiño , bitartean , iusticia educaçu ceuretçat , eta vzacaçu misericordia , bere beccatuetaric apartatzen direnentçat . Ceren bercela debecuan nahi dirutçu eskuac sartzu , bertceren çucena nahi duce ceuretu eta goratu .

#### 5. 4.

**E**rranen duçu , bethi dela on esperantça , bethi behar dela eduqui fidantzia . Eta ongi dioçu , eguiada , hala da . Ordea noiz , eta nola bethi ? Beccatu eginez guero , bainha ez egiteracoan .

Ezta Iaincoaren misericordian fidaturie beccaturic eguiñ behar . Susanna emazte saindu harc nahiago çuen , iende gaitxo batçuen escyetan erori , Iaincoaren misericordiaten inenean baino . *Melius est mihi incidere in manus hominum absque peccato , quam peccare in conspectu Domini .* Bainha erreguc Dauitec .

Daniel. 13. Nahiago çuen , Iendeequin baino , Iaincoarequin iharduqui , nahiago cituen here ongaitzac harequin iragan . *Melius est ut incidam in manus Domini , quam in manus hominum .* Eta biec , hala Dauitec nola Susannac , ceramaten contu ona . Ceren Susanna cen beccatu eguiñ gabea , eta Dauit beccatu eguna . Eta beccatu eginez guero , Iaincoarequin beharda iharduqui , hara laſter , han fida , haren

2. Reg. 24. et Reg. 24. Eta beccatu eginez guero , Iaincoarequin beharda iharduqui , hara laſter , han fida , haren

## DÍAN SOBERA FIDATV BEHAR 147

misericordiatic beharda erremedio. Nola Cesarec condenatua, apelatu baitcen Cesar bera gana, Cesar hafferretua ganic, Cesar ez hafferretua gana : hala beccatoreac ere behar du appellatu, Iaincoa ganic, Iaincoa gana: Iainco iusticiaz coa ganic, Iainco misericordiazcoa gana. Beccatu eguiñez guero, ezta bertce bideric, ezta bertce erremedioric. Ordea nehor beccatu eguiñ gahean deñean, nola baitcen Susanna, hobeda egnitecoen alde hunetaric eguitea, hobeda guiçonequin iharduquitcea eta hetaric ethor ahal daquidicaion calteari iguriquitcea, ecen ez Iaincoa baithan, eta haren misericordian fidaturic, beccatu eguitea.

Baiña guc congrara eguiten dugu. Ceriçanen baita ere ethorquiçunaz, guero Iaincoaren misericordiara ihes eguiñen badugu ere. Orai escuen gaiçean presentean eztugu, beccaturic ez eguitea gatic, placeric yeti nahia, eta ez penaric hartu: nahiago gairçaitza ethorquiçuneko peril handiari, eta gaitz bortitzari jarri, presenteeko trabaugh appurrari baiño. Eta cerc eguiten du haur? Fidatceac, contu eguiteac, berdin guero Iainco misericordiosae guztiac barccatuco derauzquigula, eta erremediatuco, Contuaren gaixtoa, fidantziaren erhoa.

Fidatzen çara, beccatu eguiñez guerozco calteac erremediatuco dituela Iaincoac, eta

### 148 EZTEL A IAINCOAREN MISERICOR

erçara fidatcen eta ez orthoitcen, erremedia ahal ditçaqueyela halaber, beccaturic ez egui tea gatic, ethor ahal daquidizquetçun atse cabeac eta eguitecoac. Behar eztenean fidatcen çara, eta ez behar deuean. Behar eztenean iduritcen çairgu Iaincoaren misericordia handi, eta ez behar denean. Hamarez cuturen behar çarenean, edo bertce premia bat era escastasun bat duçunean, erçara fitaccen, ezuçu esperantçaric, prestuqui bilittcen çarela, eta beccaturie eguin gabe egoiten çarela, ceure premia eta escastasuna estal ahal diaçaiçula Iaincoac. Era hala ceure esperantçaz gabearequin eguiten duçu beccatu, ebartzen duçu, eguiten duçu ohoñqueria bat. Era eguiten duçu ohoñqueria hura esperantçaz, guero berdin Iainco misericordiosac barccauço deratçula hartaco beccatua. Itsutasunaren handia. Orai Iaincoarequin adisquide çarenean, beccaturic gabe gaudenean, ezuçu esperantçaric Iaincoac çuregatic deus daidiqueyela, çure premia estal decaqueyela; eta guero etlai çarenean eta beccatuz betheaçaudenean, duçu fidancia, guztiac barccaturic, bere garacia eta loria, hain gauça handiac, valiosac, eta erdielteco gaitzac, emanen derauzquitçula. Gauça erracean erçara fidatcen eta bai gaitzan. Beccatlı eguiten duenarentcat da duçaçu Iaincoa, handi, çabal, franco, libe-

## DIAN SOBERA FIDATV BEHAR 149

ral ; eta beccaturic eguin gabe , prestuqui bicitcen denarentçat , estímatcen duçu dela hertsi , mehar , escas eta auaricios . Guzti- tan çabiltça etagabiltça nahasiac , etrebela- tuac etahuts eguinac .

## 5 5.

**E**Z huts eguiteco , behar beçala esperant- çä eta fidantcia içaiteco , cer eguin behar da ? Ihardesten du erregue Dauitec . *Sacrifico- te sacrificium iustitia & sperate in Domino* . Er- ran nahi du . Eguique ongui , ahalz obra oné- tan emplega çaitczte , eta gnero orduan eu- que Iauna baithan esperantça . Ceren bertce- laco esperantçac deus guti valio du .

Egun batez ehorri ceitçan fray Gil sain- duari cardenal batçuc visitatcera . Eta bere visita accabaturic partitceracoan , erran cio- ten , arten ceguiola Iaincoari hetçaz othoitz . Ihardetsi cerauen fray Gilec . Aitcitic Iau- naç çuec eguiçoüe nitçaz . Ceren nic baifio çuec siheste eta esperantça guchiago du- çue . Ordean , nolatan ahal dateque hori horrela , diotsate cardenalec ?

Ceren gugabiltça munduan barrena sart- buao , aberistafunez betheac , aseguinez , eta placerez gaitez eguinac , eta çu peniten- ciaran , obra onetan , mundoço eguitecoeta- ric cainpoan , eta guztiarequin ere dioçu

## 150 EZTELAIAINCOAREN MISERICOR

sinhesté , eta esperantçá guehiago dugula  
 que baiño? Bai , ihardesten deraue. Ceren çuc  
 bicicen çareten beçala , becicen çaretela-  
 ric ere , alegueraqui , deusen veldur gabe ,  
 salbatceco esperantçá , eta esportçú handi  
 batequin çabilicarc. Baisha ni veldur naicela ,  
 iccara diraquidala , ceren beccatore bainaiz.  
 Beraz hunelatan , quec nic baiño esperançá ,  
 eta sinhesté guehiago duque.

Iccúsico duçu , iende thaillu batçuec , ma-  
 liciaric , eta enganamenduric baicen eztire-  
 nec , den sainduenac baiño , buruac gogor-  
 ago diruzrela , eta salbatceco esperantçá gue-  
 hiago dutela : halaco moldez , ecen ethort-  
 cen çarepean halacoequin minçatcerá , erra-  
 nen baiteratçute , ezteçaquetela bere espe-  
 rantçá , çurearequin truca : eztaeducatela ne-  
 hor ere bere buruac baiño sainduago , eta ez  
 prestu ago : nor nahi den beçain ongui Iain-  
 coari gomendatcen çaitçala. Eta bitartean  
 beharrietaraiño beccatutan barrena sar-  
 thuac egoñ. Itsutasunaren handia ; deabrua-  
 xen enganamendua. Vste baitute , eta vste  
 baituçu , beccatutan çaudela , parabisua ema-  
 nen çaitçula , misericordia eguienen çaitçula  
 Horida , Iaincoáz , eta Iaincoaren misericor-  
 diaz , escarniateca : horida esperantçá , espe-  
 rantçá gabea , fidantcia ethoa , gaiñez eguna ,  
 soberaniazcoa. Eta ezta ez hori fidantcia ere  
 Bainha hori da , ausartcia , presuncionea , na-

## DIAN SOBERA FIDATV BEHAR 151

hi-erhoa , eta misericordia heltzen den bai-  
ño aitcinago , çure desiraren hedatcea. Are  
guehiago , hori da spiritu sainduaren contra-  
diren beccatuetarie bat. Eta hala misericor-  
diaren esperantçan , beccatu eguiten duenac ,  
eztu misericordiarie mereci. Ceren halacoa ,  
misericordiaren beraren contra baitabilla.  
Hala emaiten du aditcera San Basilioc , pe-  
nitenciaz mintço dela. *Qui spe penitentia male  
agit , modum habet maleficentia , & penitentia pri-  
natus est.* Penitenciaren esperantçan beccatu Baf!. Tom.  
eguiten duenac , eztu bide onahartzen , eztu  
penitenciarie valiadaquion mereci. Eta mol-  
de bercan erran ahal diteque , misericordia-  
ren esperantçan beccatu eguiten duenaz ere ,  
eztu harc ere misericordiaric mereci.

Nahi badugu yrrical gaquitçan gyeure  
Iaincoari , ençun gaitçan , lagun daquigun ,  
eta eduqui deçan gutçaz misericordia , en-  
seia gaitecingu ere gueure alderic , gueure  
eguin bidearen eguitera , beccatuetarie apar-  
tecera , eta manamendu sainduen beguirat-  
terea. Ceren halatan bai , bañia berteela , bert-  
celaco esperantça guztiac , eztira esperant-  
ça , alfer dira , erhoqueriac dira.

Beraz hunelatan , eztugu misericordiaren  
esperantçan beccaturie eguin behar , eta ez  
fidantzia hartan penitencia eguitea , eta az-  
tura gaixtoen urztea , gueroco luçatu behar.  
Aitcitic ceren Iaincoa den hain on , bihotz

## 152. EZTELAIAINCOAREN MISERICOR

bera eta misericordios. Ceren bain maite gaituen : ceren beccatu eguiñ , eta bere hala ezcaituen gaztigarcen , ceren iguriquitcen deracun ; eta finean ceren hanbat ongieta ontafun eguiten deracun , hargatik bera gatic ere , hartzaric occafino harturic , behar guenduque , are bertcela eguin en guenduen baño hobequiago , haren vorondarearen eguitera enseiaiu : eta cerere beccatu , eta gaixtaqueria oraiñocoan erabili baitugu , hec guztiak vtciric , prestutasun batean iartcerat deliberatu : eta halaco moldez , thailuz era suitez aircinerat gouernatu , non azqüen finean , Iainçoaren misericordia requin batean erdierz deçagun gureçat ordenaturic , eta prestaturic dagoen bozcarioa , ceit baita ceruko loria.

*Nola querotic querora ibilseaz, galicen  
dugun dembora.*

## C A P. X I I.

**C**Verotic querora çabilçe , vrthe hune-  
Itangaixti içanic , dathorquenyean onduco , eta prestutuço çarela dioğu . Bada biz hala , çuc dioçun beçala , eta gogoan darabillaçun beçala , quertha daquçun , eta vrthe

## DEMBORAM GALTCEAZ.

153

the hunetangaixto içanic, çure guero horretan, ethorquiçunean prestu çaitecin. Hori horrela baliz ere, non da bataz, vrthe hunetan eguin ahal cenduqueyen irabacia eta aitcinamendua? Ceren guristino onec vrthe batez anhitz obra on eguiten dute, eta bai meritu ere erdiesten. Guristino onac vrthe batbez aitcinatzen dira, bainha çu nola aitcinautuço çaren ecen guibelatzen çara, anhitz beccatu, eta gaixtaqueria eguiten duçula, eta berriz bertcea, non da halaber bitartean, vrthe hunetan, çure Guero horretara helar-terainocoan, galtzen duçun dembora? *Fili Ecclesi conferuat tempus.* Ene seme beguïra eçaçu dembora Dio espiritu sainduac. Aitcinean duçuñio, çaqitça. Ceren behinjoanez guero, eztabihurtceric, eta ez erdiesteric, *fronte capillata est, ac post occasio calua Occasio* Auson. noa copetan belarrean, aitein aldean, illet-  
su da, eta cherlosu, bainha garhaitean, gar-  
cetan, guibel aldean, motz, soil, garbal,  
carsoil, eta ille gabe. Aitcinean badu, non-  
dic lot, bainha ez guibelean. Beraz aitcinean  
duçuñio, probetcha çaqitça. Ceren guibe-  
letaz guero, eztu escu-roquiric, eta ez lot-  
ceco guirhainic. Bada occasinoa beçala da,  
dembora ere. Beraz hunelatan. *Quodcumque Eccles. 9,*  
*potesſ facere manus tua iſſanter operare. Quia*  
*nec opus, nec ratio, nec sapientia, erit apud inferos*  
*qua tu properas.* Orai, dembora aitcinean du-

L

## 154 DEMBORAREN GALTCEAZ

quiño, eguiçu ahal daguiçuna: eta orai ere. *Instanter*, fire presentecon. Ceren iaquin beharduçu ecen eztela guero, que ioan beharduçon leccy hertan, arraçoin alegatceric, eta ez iaquintasunaz probechatceric ijanen. Vtzen baduçu, nola eztaquicula, orai escuen artean duçun dembora iragaitera, eguiñ da, galdu da, ezta guehiago bihurtceric. Hargatic erraiten du iondone Pauloc, *Dum tempus habemus operemur bonum.* Dembora duguiño daguigun ongui.

Ad Galat 6

Erran beça Aristotelec nahi duena demboraz. Bañia gure contuco. Dembora da lehen, orai eta guero, gauceen ibilcea, iragaitea eta iragaitearequin batean, higartcea eta accabatcea. Dembora berrihi doha. *Nequo quod futurum est meum, neque quod fuit.* Dio feneac. Iraganan, eta ethor quiçuna eztiraguere. Ioanaioan, ethorqnezuna ethorquiçun, presentecoa da gure, eta ez bertceric.

*Tempus est numerus motus, secundum prius, & posterius.*  
Aristo. 4  
Phisico.

*Senec.lib 6 natu·ralis, quæstio.*  
§ Thom. I.  
p. q. 66. art 4  
ad. 4 & 5.

Eta presenteco haur, hayn da guti ecen erraiten baitu san Thomasec. *De tempore nihil est accipere in actu, nisi nunc.* Demboratik eztugu deus ere, orai bat baicen, iraute appurra, pontutsu bat, eta ez guehiago. Eguia da ordea, nola pontutsu hunec, orai hunec iuntarcen, eta iosten beçala baititu elccarrequin iraganan, eta ethorquiçuna, ioste hunec orhoitcen gaitu iraganaz, eta ethorquiçunaz ere, esperantça emaiten. Eta halatan ohor-

## DEMBORAREN GALTEAZ

155

itce hunequin, eta esperantça hunequin bat-  
tean, iragana, eta ethorquiçuna, presente-  
coarequin lothuric, eta bat eguinic, etçaiçu  
presente coa hain labur iduritcen. Ceren  
guztiac elccarrequin beçala, eta bat baillira  
beçala hartcen baititugu. Hala erraiten du  
senecac. *Longam illi facit vitam, omnium tem-*

*porum in unum collatio.*  
Senec de  
breuitate

Ordea den beçala, eta behar den beçala *vix cap. 13*  
demboraren hartcera, edireneng dugu, deus  
guti dela, mehar dela eta labur. Presente-  
coa goça deçaquegu, ethorquiçunecoa desira  
eta iragana lauda edo auhen eta deithora.  
Iraganac eztu erremedioric, hora ioan da;  
ethorquiçunecoa eztaquigu emanen çaicunz;  
presente coa hain da guti, labur era ez deus,  
ecen orai ere, bi garren hitza hasi dudaneco,  
iragan baitateque lehenbicicoa, eta lehenbi  
cicoaren dembora.

Içatu da erran duenic dembora eztela deus,  
hartçaz örhoitçapenic edo pensatceric eztenean.  
Eta halatan lo datçanari, etçaiçala  
orduko dembora, deus iduritcen, eztuela sen-  
titcen, ez paifliz beçala iragaiten çaiçala.  
Ceren orduan ezpaitu hartan pensatzen, eta  
ez gogoric eduquitcen.

Vratequin nahi nuque, comparatu dembo-  
ra. Ceren demborac, eta vrac eleccaren idu-  
rica bandi baitute. Vra bethi doha, bata  
berceari darraica. Iragana aitcina da, et-

L 2

## 156 DEMBORAREN GALTCEAZ

horquiçunecoa guibela dago, eta aitcinecoa c aitcinean guti irauten du. Eztu nehorc iragan den vrietik hartzen, eraez ethortceco da-goenetic ere; aitcinecotik, iragaitean, presentean denean behar da attrapatu. Hala da bada, eta hala egun behar da demboraz ere, presentekoari lot çaqitça, hari probetcha çaqitça. Ceren beitzela, haice onadenean, vela egungabe, guelditzen den vntzia begala, gueldi ahal cindezque çu ere.

§ :

**D**emboratic gauza appurra, orai haur dugu, eta ez bertceric. Ordea norc erranen du cenbat valio duen orai hunec? Iraute, iraupe, eta bitarte itipi, appur labur hunec? Hanbat valio du, non baldin orai ifernuan dagoen bati, eman balequio hautatzen, ea cein luqueyen nahiago bere escuco, ala mundu haur guztior, bere ongutziequin, ala oren baten dembora, eta bitartea? Segur da ez oren baten dembora, baiña are, beguien goiti ail-chatzeco azco luqueyen bitartea ere, lehen hauta leçaqueyela, nahiago luqueyela, eta bai hobeago ere, mundu guztia baisho.

Ceren dembora appur hura, den appurrena ere, ongi emplegateen fuela, asco baillu-que an arterainoko falta guztien erremediat-

## DEMBORAREN GALTCEAZ. 157

ceco , eta ceruco loriaren erdiesteco.

Erraiten da , gauça bat preciatua dela , har taric pusca tripiac , bertcetaric handiac baiñio guehiago valio duenean , eta halatan erraiten da gauza preciatua dela vrrea . Beraz ci- nez da gauça preciatua , eta valiossa dembo- ra , cerenden gutiena bihotzezco vrriqui- mendu batequin , also baita , salbamenduaren , eguiteco . Eta ezpere galdeguiço , bere azquen orenean , hain laburzqui , parabitua Irabaci quen ohoñiari , ea cer iduri çaicán , demboraz ? Egaçu estimatcecoa , eta e- certan eduquitcecoa denz ? Eta harc frogatuac begala , erranen deratçn , baiez , ecer- tan eduquitcecoa dela , valiossa dela , eztuela munduan bere pareric .

Hain da gauça handia , eta aberatsa , orai escuen artean dugun demboraren orai haur , ecen purgatorioetaco penac , mundu hune- taco pena guztiac elccartí iratchequiric bai- ño , handiagoac direlaric , guztiarequin ere erraiten baitu doctor batec . *Plus valeat hic in Ld Iphas patientia dies unus, quam. in purgatorio annus. ex Saxonia Guehiago valio du eta guehiago eguiten du, orai hemen egun batez obra onetan emple- gaceac guero purgatorioetan vrthe batez penatcen egoiteac baiñio . Oraico egunac valioco du , vrthea . Halae maiten du adit- cera Ezequiel Prophetac . Diem pro anno dedi tibi . Eman neratçun eguna vrtherçat . Erran Ezequi . 4.*

## 158 DEMBORAREN GALTCEAZ

nahidu Eman deratçur, eta emaiten deratzut anhitz egun, hain aberatsic, valiosic, eta precio handitacoric, non hetaric batec valio baitu, eta valioco baitu vrthebat. Ceren guero vrthe batez egun ditequeyena, eta egui nen dena, egun baititeque orai egun batez. Eta arraçoina, Ceren guero igané eztena, ori baita merecitceco, eta ontasunean aitcinatceco abala, indarra, eta libertatea. Eta halaber ceren bi pena suerte baitira, bata da, *Pena inficta*. Bert-cec emaiten deracuna, bertce taric heldu çaicuna, nola baita purgatorioetaco pena, eritasun batetaco.

Vide dioni  
ch. etia.  
de iudicio  
animæ,  
cap. 15.

Bertcea da, *pana assumpia*, gueroc gueurre vorondatez hartcen duguna, nola baita eguitendugun penitencia, barurceea, oracintonan egoitea, erromerian ibiltcea. Etapena harc, gueroc gueure vorondatez hartcen dugunac, eramaiten dio aitcin aldea, bertce penari, bertce emaiten deracunari, pacientqui errecibitu a içan agatic ere. Ceren purgatorioetan dagoenac nahi luque handic libratu, eta bai eriac ere sendatu.

Bañia orai gueroc gueure vorondatez eguitendugun penitencia, eta hartcen dugun pena, alde guztiz da vorondatezcoa, valiossa, eta laincoari eder çaicana. Eta halatan huncer eramaiten deraue purgatorioetaco penari, eta eritasunecoari ere, vreac, bertce diru guztiey eramaiten derauen abantailla.

## DEMBORAREN GALTCEAZ. 159

Ceren Iaincac behatzen badu ere iragaiten dugun penata, ordea are ago behatcendu, hartaco vorondarera. Beraz ora i, pena ,ora i barur , cilicioa har. Ceren oraico pena ttipiac ,gueroc librequi ,gueure vorondatez hartzen dugunac, guchi ago valioco du ,purgatorio etaco ,edo eritasuneco pena handiac baiño. Eta hala badirudi ecen purgatorio etan daudenec , eztutela deusez ere hanbat damu , eta atsecabe içaneu , nola demboraren galduaz , gaizqui emplegatuaz era bere buruen, bere vorondatez appurbat bedere ezpenatuaz. Arraçoinequin erraiten du San Chrisostomoc. *Neque intelligis omnia potius* Chris hom *esse amittenda quam tempus , aurum amittit , potest* 57 in cap 9 recuperari , amissum tempus difficulter. loan tom 3

Eztu cu aditeen , bertze gauça guztiac lehen vtoi behar direla , galtcera demooora baizo. Ceren vrreca , eta cilharra cobera ditez- que galdu agatic , baifia ez dembora.

## §. 2.

**N**ibil pratiſſus tempore & heu nihil ea vilius Bernad ad innenitur. Dio San Bernardoc. Ezta scolaſt munduan gauça preciatuagoric dembora baiño , ordea ai , ezta egungo egunean gauza eztheusagoric edireiten. Eztugu deusez ere , hain contu guti,eguiten,nola dembaraz.

*Quem mibi das qui aliquod pratum temporis*

L 4

**Ibo DEMBORAREN GALTCEAZ.**

*ponat qui diem estimet?* Nor emanen derautaçu, galdegitendu senecac, déborari precio dioenic? Eguna mereci beçala estimatcen dueñic? Fitisaren berdin, ez deusen pare daducagu dembora. Badirudi trabatzcen gaituela anhitzen ere, ezpaguendu, nahi guendu queyela; eziaquinez certan iragan gabiltçala, Oren batean garenean, bi garrenean baguina desiratzen dugula. Erran behar da aberatz garela, munduan den gauçaric aberatsena, eta valiossena, hain francoqui derabillagu-neá Bada ala çuc etanic ere, déboraren galtce huncıaz, probetchatu gabe iragaitera vtz-teaz, contu hertsia, eman beharco baitiogu Iaincoari.

Hirur moldez, erran alal diteque galtcen dela dembora. Lehen bicicoa, beccatu eguiteaz, eta becca utan egsiteaz. Beccatu eguiten hari çarela, eta eguiñez guero, hetan çaudela, iragaiten çaitçun dembora, emaçu galduçat. Dembora harc eztu deus valio çuretçat. Aitcitic hartan ceure arima, eta arimaco on guztiac, eta comunzqui gorputz-cecoac ere galtceintutçu, vra behera beçala, egorztejntuçu. Dembora hura da demboratric galduena, eta galgarriena.

Bi garrena, galtcen da dembora, gogoeta erho, vano deus valio ez tuten batçuetan egoiteaz. Cerori baccarric, alfer, aise, eguitetoric gabe, ongi iana eta hobequi edana

## DEMBORAREN GALTCEAZ. 161

çaudenean , eta guztiz ere ohean loz asseric, arduraric gabe , çautçanean , eguiten duçu, ceure baithan barrena , milla pensu era gogoeta , milla dorre eta gaztelu. Eguiten çara Aita Saindu, eguiten çara Erregue aberatzen çara , eguiten duçu anhitz valentia. Ethortcen çairçuioco eder bat, irabazten duçu. Finean erabiltceintuğ ceure gogoan , hala baliira nahi cenduqueyen gauça batçuc. Eta seculan hala içanen ezpadira ere , eta eztirela içanen badaquiquere , guztiarequin ere , hala pensatceaz beraz ere , gogœta erho hetan egoiteaz , atsegvin hartzen duçu. Eta bitartean eztuçu consideratzen , çuc handic atheistzen duçun probetchua demboraren galtcedela , eta ez berteeric.

Hirur garrena galtzen da dembora gorputz. aren placeretan ibiltceaz. Erraitenduçu, deça- gun dembora iragan , gaitecin ioca , gaitecin dantça era dosta. Eta erçaitçu gogoratzan, bitartean dembora galtzen duçula. Bada erraiten du San Bernardoc *Omne tempus in quo de Bernard.* *Deo non cogitas, hoc te computes perdidisse.* Iain- coa baithan pensatzen eztuçula , iragan çait çun dembora guztia , eguiçu contu galdu duçula. Hala erraiten du San Geronimoc ere. *Omne tempus in quo meliora esse non senseris , estimam Hieron. ad perdidisse.* Hobetu çarenz sentitu gabe era cer- bait ontasun eguiñ gabe iragaité çaitçun dem- bora , estimam eçañ galdu duzula. *Eta azco.* *Esta aço*

## 162 DEMBORAREN GALTCEAZ.

gaizquiric ez eguitea , ezta ezco ez gaixtarcea  
baisia ondu behar da, eta ongi egun beharda  
ez aiteinatcea , guibelatea da , Ceren bitar-  
tean bertce calteric ez pada ere, dembora galt-  
cen eta probetchatu gobe iragairen baita.

Contu eguiçu ecen orai ditutçula berrogoy  
vrthe. Eta eguiçu halaber contu eta gogoeta  
cenbat ongi eta obra on egun ditutçun , ber-  
rogoi vrthe horietan , eta edireneng duçu , bal-  
din cincinez , finqui eta debotqui manaiatu  
eta emplegatu bacina , berrogoy vrthe hori-  
etan egun ditutçun onguiac , ontafunac-eta  
obra on guziac , egun cinituzqueyela vrthe  
bitez. Beraz Hunelatan galduitutçu bertce  
vrthe guziac , berrogoietatic , hogoy eta he-  
meretciac. Cer contu emanen duçu bada vrthe  
galdu hetçaz ? Hitz alfer guzciez eman be-  
hat da contu, cer içanenda bada hanbat dem-  
bora galduz , eta alfer iraganez ? Arraoinie-  
qin erraiten du Ieremias Prophetac , *Vocavit  
aduersum me tempus.* Deitu quen ene contra  
dembora. Demborac berac , gic galtcen du-  
gunac, accusatcen gaitu, hura bera iaiquitcen-  
da gure contra.

Thren. I.

Senec. Epis.  
3.

*Omnia mi Lucile aliena sunt , tempus autem no-  
strum est,* dio Senecac. bertce gauça guzciac,  
bertcerenac dira bañia ez dembora , hura gu-  
rea da.

Orai ezcuen artean dugun dembora , pre-  
farcen deracu gueute laungoicoac, vtzten de-

## DEMBORAREN GALTCEAZ 163

racu gueure escuco. Eta nahi du probetcha gaquicçan , obra onetan emplega deçagun, eta hala emplegaturic ere escatuco çaicu contu baldin meça ençun badugu ea ongui , eta hartan pensatzen dugula ençun dugunz. Baldin baturtu bagara, oracintonan egon bagara , Probeari erremusina eman badiogu ( hauc obra onac baitira ) hautçaz guztioz escatuco çaicu contu, ea edergaillu,mundua gatic,ala Iaincoa gatic era intēcione onez vanalotiaric gabe eguin ditugunz. Hala eraiten du Propheta Dauitec Iaincoaren partez minęço dela. *Cum accepero tempus ego iustitias iudicabo.* Dembora neure gana deça danean, heriotceco orenean , hain herfluqui escatuco, naiz contu , non obra onac ere,ea ongi iustuqui , eta behar beçala eguinac direnz examinatuco era iulgatuco baitirut. Obra onac ere baldin ongi , era intencionе onez eguinac ezpadira, gaixtorçat emanic condenatucoitu Iaincoac.

Psal.74.

## 5. 3.

**B** Aldin presenteeco dembora haur , orai es- cuen artean duguna , emplegatzen ezpadugu ongi , peril da edequi daquigun ethor- quiçunecoa. Eta ala bainha haur da gure erhoberria edo istutasuna , vste baitugu , gueure lehenecoa galzqui emplegatu guztiarequin ere , aitcinerat ere , orobat emanen çaicula

## 164 DEMBORAREN GALTCEAZ

dembora. Baldin mercatari batec , eman ba-  
liaço bere semeari diru suma bat bere escuco,  
manai leçan , emplega leçan , tratuan , eta  
mercatalgoan erabil leçan. Eta halatan tratua  
iccaffiric, berac bere buruz , cerbait irabaz le-  
gan. Ordea baldin seme harc , bere aitaren  
eman hec guztiac , iocoan , ian edanean , eta  
arloterian gasta balirça , arraçoinequin liça-  
teque seme hura veldur , ezliaçon bere aitac  
aitzinarat , guehiago eman eta ez fida , eta are  
lehen emanac ere edequi liatçon. Hala bada,  
arraçoinequin iaganen gara gu ere veldur , ede-  
qui diaçagun gueure Iaungoicoac ethorqui-  
çuneco dembora , iragana hain gaizqui em-  
plegatu dugunaz gueroztic, Hala Noeren  
demboran , ehun , eta hogoy vrthe bicitce-  
co prometatz guero , edequi cerauzten az-  
queneco hogoyac , ceren leheneco ehunac,  
gaizqui emplegatu baitxituzten. Haur emai-  
ten du aditcera erregue Dauitec ere erraiten  
duenean. *Viri sanguinum & dolos, non dimi-  
diabunt dier suos.* Guiçon gaixto odol-isurle,  
guerlati , maliciati , eta enganatic , eztitzu-  
te bere egunac erditzcatuco , eztira halacoac  
bertcela , bicico cirenaren , erdia bicico.

Batquec bere gazte demboran , odola bero  
duçenean , bicitcen dira , Iaincoric , heriot-  
ceric , edo contu errendatceric , ezpailliz be-  
çala , libertate handian , milla beccatu mali-  
cia , eta enganamendu eguiten dutela : gor-

## DEMOCRATISMO GALTCEAZ 165

putzari , ahal beçanbat placer emaiten diotela. Bainha guero çahartcean , odola ho zten hasten çayenean , hasten dira halaber echor- quiçunaz orhoitzen , hil behar dutela , eta hil ondoan contu errendatu behar dutela , ohart- cen , eta pensatzen . Eta handic harat , hala bera buruey ohartuz guero , içultzen dute pla- ma , eta orria bertce aldera : eta lehen gaixto beçain eguiten dira guero on eta prestu. Ha- lacoec , *dimidiante dies suos* , bere egunac er- dizcatceintuzte , bi erdi eguiteintuzte. Ce- ren erdi bata , gaztetafuna gaizqui emplegatu baçutzen ere , bertce erdia , çahartcea , ongi accabatu baitçuten . Eta haur da azquenecoritz ongi erdizcatcea , gaixtoa vicitic , onaren hartcea , iondone Paulo batec beçala egui- tea.

Bainha berriz bertce batçuc gaztean dira on , prestu , eta debocinotsu , eta çahartcean gaixto , eta maliciatsu. Hastean on , eta acca- batcean gaixto , Iudas içan cen beçala. Ha- lacoec , *dimidiante dies suos* , erdizcatceintuz- te bere egunac , bi erdi eguiteintuzte. Ceren çahartcean gaixto badira ere , gaztean on içan baitciren. Ordea hura da gaizqui , eta gaixto- qui egunen erdizcatcea , ceren onetic gaix- tora aldarcen baitira. Eta hanbatic hanbatean gaixto ago , eta perilos ago da , çahartcean gaixto içaita , gaztean baino.

Bainha síncah berriz bertce batçuc , Non

## 166 DEMBORAREN GALTCEAZ

*dimidiam dies suos.* Eztituzte nehoiz ete erdizcacen bere egunac. Ceren hala çahartcean nola gaztean , arron baitira bat, bethiere baitira maliciaz , eta gaixtaqueriaz orobat. Eta halaco hec icustun dutenean bere egunac laburtu hurran çaztela , heriotcera hurbiltzen direla , contu eman behar dutela. Orduan, pagatçille gaixtoec eguiten durena, escatuco dira eppe eta luçamendu guehiago. *In die red-*

*Eccles. 39. diuinis postulabu tempus.* Ordea nola iraganaz contu charra eman baituquete , ezira enueniac içanen : etçaye hequen promesey sinbisteric emanen , ezra hequen erranetan nehor guehiago fidatuco. Hala erran çuen Ainguiruac ere , gañnecoaz cin egunic , ercela içanen guehiago demboraric , accabatuco cirela guerooco guero guztia. *Iurabit per viuentem in facula , quia non erit tempus.*

Eguin ahal deçaquegu nahi beçanbat , edo ahal beçanbat enseiu , eta itçul-inguru , baiña azquenean ere, eçin ihesic daidiquegun demborara , eta pontura herstu , eta vildu behar-

Greg. hom. 12. super Euang. & lib. 4. dia- log. cap. 38. co dugu. Hala contacen du San Gregorio, ecen Chrysaorio ceritçan guiçon gaizto batetec , bere azquen orenera cenean , munquau eguin ahal cirçan othoitz guztiac eguin agatik , ecin erdietsi çuela ,biharamuneço luçamendua. *Copie magnis vocibus clamare , inducias vel usque mane , inducias vel usque mane : sed cum clamaret , in istis suis vocibus , de babitaculo sua*

## DEMBORAREN GALTCEAZ 167

*carnis eunſus eſt.* Herstu cencan , nahiçueyen appur bat luçau , nahiçueyen bi-haramun arterrañoco dembora irabaci : anhitz hitz eder ahotic athera çuen anhitz othoitz , eta oihu eguin çuen : anhitzetan , egun baten tregoaaren epearen , eta espasioaren escatu cen. Bainha guztiac alferric. Oihuz , eta othoitezzez regoela , bere egunac accabatu ceitçan arimac eguin ceraucan , eta seculacotz condenatu cen.

## § 2.

**B**Eraz hunelatan , bat ere sentimendurie badugo , eztugu guerotic guerora ibili behar : Eztugu aitcinerat guehiago demborarit galdu behar . Aitcitic lehen galdu duguna , behar dugu orai coberatu , eta erremediatus. Ordea nola edo cer moldez erremedia ahal diteque eta cobera ? Ceren ioana , ioanda , ezta haren bihurtceric , eta ez escuetaratic . Ihardesten du San Gregorioc hitz guitz , eta laburzqui . *Tēpus redimimus , quando ante actam vitam , quam lasciviendo perdidimus , flendo reparamus.* Dembora iragana rescatacen , eta gueure tacotcen dugu noiz , eta bicitce gaixto iragana irriz , eta placerez galdu guenduena , nigarrez , eta desplacerez coberratzen , eta erreparatzen baitugu . Erran nahidu , Dembora iragana , gaizqui emplegatu

Greg. lib.  
Moral. cap.  
28.

## 168 DEMBORAREN GALTCEAZ

guenduena , escuetaric ioan ceicuna , erdiets-  
ten dugu , orduco placeren ordain , orai des-  
placer dobleac hartcen ditugunean : orduan  
eguin behar guinituen onguiac , eta orai eguin  
behar ditugunac , orai eguiten ditugunean.  
Haur da San Thomasec ere satisfacioneaz

S Thom. in mintço dela erraiten duena. *Quoniam homo non possit tempus prateritum recuperare potest tamen recompensare , illud quod in praterito fecisse debuisse.*

4-

Guiçonac dembota iragana eciñ cobera  
badeçaque ere , eta ez bihur , ordea erremer-  
dia deçaque , iraganeko falta , iraganean eguin  
behar çueñoguiä , eguité duela ethorquiguneä .  
Baldí iraganeä meça bat éçü behar bacédué ,  
eta ez hura éçü , cofessa hartaco beccatus , eta  
guero ethorqui çuneá dobla , éçun bia . Baldin  
iraganean egun batez barurtu behar bacen-  
duen , eta ez barurtu : lehenic cofessa harraco  
beccatua , eta guero ethorqui çunean dobla ,  
barur bi egunez . Halatan dembora iragan  
gaizqui emplegatua , eguin ahal ditequeyen  
inoldean rescatatcen , coberatcen , eta erre-  
mediatcen da . Bi orenen bidea iragaiteco du-  
çunean , eta oren hetaric bata , alferquerian ,  
ian edancañ , eta arloterian iragan duçunean ,  
cer erremedio çeure bidearen mugaz , eta il-  
hundu gabe erdieste co ? Guerthatu caitçun  
faltaren estalceco ? Cet ? gueldicen çaitçun  
oren harten , hain -cinez , eta laxter abiatcen  
çara , non bi orenen bidea , batez eguiten bai-

TUÇÜ

## DEMBORAREN GALTCEAZ 169

tuçu, eta halatan erremediarcen eta estaltcen ceure leheneco falta eta alferqueria. Bada molde hunetan berean guc ere gueure dembora, hunerainocoan alferquerian eta gaixtaquerian gaizqui emplegatu duguna, orai ontasunean dobjatuz eta laster egunez behar dugu soberatu, era erdietsi. Hala erraiten da, ardiac ere, arratz aldean, fitetz ago ianez bere goizeco gutiiana, erdiesten duela. Halatan mahastiarren iabeac ere, arratz aldean trabaillatzen hasi cireney eman cerauen hanbat iornal, eta alocairu, nola goizetic trabaillatu cireney. Cerën arratz aldean hasi cirenac, hain cinez eta gogotic hariçan ciren, non hec dembora gutiz, bertcec anhitzez bejanbat egun baitçuten.

Bada haur beror egun behar dugu guc ere orai arrats aldeon, çahartceon, gueure egun non accabatceon. Oiai baitacusagu ecen ia adinaren arauaz, heriotceco portura hurbilten garela, hemengoaz, egun hurandugula. Orai bada orai behar dugu permatu; orai behar derauegu, escuey eraguin. Orai nori bera errenda, orai etaigoatic ilzqui. Orai ethorqui çunean pensa. Orai cin cinez, bihorrezco vriquimendu batequin, eta guehiago ez eguiteco vorondatearequin, aitcientic concientzia ongui iratioric, era examinaturic, osoqui, era eguiazqui cofessa: confessatu ondoan, leheneco occasinoetaric

M

## 170 GAZETETIC ÇAHARTCERA

aparta, ez guchiago hetara, eta ez bertce halaco etara iççul. Halatan dembora iragana, hain gauça handia, eta valioffa, guerotic guerrora ibiltceaz galdu duguna, erremedia ahal ditequeyen moldean, erremediatuco, coberratuko, eta erdietsico dugu?

---

*Gaztetik çahartcera penitencia luçatzen duenaz.*

## C A P. XIII.

Eccles. 32. **R**raitēdu spiritu sainduac. *Memento crea-*  
*toris sui in diebus inuenientis tuae, antequam ve-*  
*mat tempus afflictionis tuae, & appropinquare anni*  
*de quibus dicas, non mihi placem.* Orhoit çaiteci  
 ceure Iaungoicoaz ceure gazte demboran,  
 çahartceco penie etara baiño lchen, eta hur-  
 bildu gabe vrthe hec, ceiñen gatic datoci-  
 nean, etxanen baituçu, eztira ene gogaraco.  
 Gazte çareñio, ahala, eta indarra duçuiño,  
 trabailla çaité, orduan escuey eraguięçu.  
 Ceren çahartuz guero, çahatceac berac ema-  
 nen deratçu eguitecoric asco.

Hanbatic hanbatean, eder ago çaitça Iain-  
 coari gazterasuneco obra onac, çahartasunc-  
 coac baiño. Ceren gazterasunecoac bere  
 eguitez hobe ago, eta eder ago baitita. Ma-

## PENITENCIA LVÇATCEN DVENAZ. 171

natcen çuen Iaincoac legue çabarrean, frui-  
tu guzietaric primicia emah ciaçotela, guz-  
ietaric parte bat, eta parteric hoherena,  
principalena, eta estiñatueno, nola comunz-  
qui ohi baita lehenbicicoa, offerenda ciaçotela.  
Manatcen çuen halaber Iaincoac be-  
rac, vfoetaric, ez vfo handiac, baiñavsa cu-  
meac eccarciatçotela. Gazteac nahi cituen,  
eta ez çaharrac. Ceren. vfoac cenbatenaz  
gazte ago, hanbatenaz dira hobe ago, goço  
ago, eta çaporetu ago. Hala dira bada ha-  
laber gaztetasuneco obra onac ere, çaharta  
funecoac baiño gai ago, eta valios ago.  
Eta halatan da gure Iaincoa ere hetaric  
gurcios ago, desiros ago, eta çale ago.  
Hala erraiten du Miqueas Prophetaren  
çazpigarren capituluan. *Precocas fisus desiderant anima mea.* Miche za  
Goiz ontcen diren ficoac,  
desiratcen cituen ene arimac. Presuna gaztē-  
en lehenbicico obra on hec nahi nituzque,  
hetaric naiz çale, eta gura, hec çaiquit on,  
goço, eta ezt.

Hargatic da Theologoen etrana, guiçona  
adimendurá heltcen den beçain sarri, pon-  
tu berean, obligatu dela, bihorzaren Iain-  
coa gana ailtchatcera, haren manamen-  
duen complitceco gogo harrcera, eta arra-  
çoiñ naturalaren arauaz bedere bicitcera.

Pintatçaille batec. eguin baleça imágina  
oder bat alde guztiz complitua, eta abantail-

## 172 GAZETETIC ÇAHARTCERA

latua : imagina harc , baldin eçagurçaric balu , nori lehenic behatu behar othe leratucio? Segur da pintatçailleari , berari , bere eguilleari . Beraz hunelatan guionac ere , Iaincoac berac bere imaginara , eta idurira , hain edetqui eguna denaz gueroz , adimendura heltcen den beçain fite , bere eguilleari berari , iduria eman dioenari , behar dio behatu , haren cerbitçuan behar du bere ahala emplegatu . Hunen arauaz erraiten du Ion-

**s. 2d** *'Thi-* done Pauloc . *Laborantem agricolam , op-*  
**■ s. 2.** *portet primum , de fructibus accipere.* Ar-

raçoin da , trabaillatcen den laborariac , be-

rac lehenic bere fruituetaric dasta deçan .

**Corin.3.** Etaiondone Pauloc berac dioen beçala . *Dei*  
*agricultura estis.* Quec çarete , eta gu gara ,  
*Iaincoaren laboraritasuna :* gu gara , Iainco-  
*aren lur- landua , appaindua eta trabaill-*  
*latua . Arraçoin içanen da beraz halaber ,*  
*Iaincoac berac , laborari onac beçala , bere*  
*trabaillua , lehenic goça deçan :* eta adi-  
*mendura edo endelegamendura heltcen ga-*  
*ren pontu beretic , gure obren primicia : eta*  
*lehenia dasta deçan .*

Baňa , aï , aï , ai , era millatan aï . Non da  
 bere lehen fruitutic , bere obren hastetic ,  
 Iaincoari dasta atacitcen deraucanic ? Non  
 da guiristino golz-tiaric ? Goiz ontcen de-  
 nic ? Gaztè danic Iaincoa cerbitçatecen due-  
 nic ? *Va mibi quia factus sum sicut qui col-*

## PENITENCIA LVÇATCEN DVENAZ 173

*ligit, in anummo racemos vindimia, non est borus ad comedendum.* Ai ene vrrical- Mich.7.  
quiçuna (dio Miqueas Prophetac)ceren ni  
eguin naiz vdaren finean, bertceren bil on-  
doan mahats hondar-mondarren, bilhada-  
billana beçala. Hoberenac bertceec etamain-  
tu. Ezterautate morcoxta bâr ere, eta ez bic-  
cor bar, ahoan eman ahal ditequeyenic vrci.  
Bada haur beror erran ahaldeçaque gure Ia-  
ungoicoac ere. Ceren gure gaztetasuna bert-  
ceec ioaiten du Lehenbicico obrac bertceec  
biltcintu. Deus guelditcen baçaica ere,  
bil ondoac, hondarrac, çahartcecoac, guel-  
dit cen caitça. Eta gaixtoeneco contuan, ail-  
lequitça hec ere, edo hec bedere gueldi.

## J. I.

**B**Adirudi ecen desohore eta laido cayela  
Boraico presuna gaztey prestuqui bicit-  
cea, eta beccaturic eguin gabe egoitea. Bere  
eguin bidea, Iaincoari çor dioteni cerbitçua,  
gueroco, çahartceco ordenatcen dute, errai-  
tendutela. Berdin oraino ézta hiltceco peri-  
lic, fendo naiz, gazte naiz, eta gazteac gazte  
antçu, gazte beçala behar du bici eta gouer-  
natu. Cer lerraque munduac berac ere,  
baldin orai danic parti banenguio? Hor  
helduda çahartasuna, dembora pausatua,  
vimoa, erho querien vztecoa. Orduan bai,

## 174 GAZETIC ÇAHARTCERA

Orduan onduco naiz : orduan munduari gula bela emanen dior , eta debocinoan sartuco naiz . Baixa an arterainocean deçadan atseguiñ har , deçadan mundua cerbitça : naquion goça ; naquion behin , berriz bihurtceco defiraric eztuquedan beçala , asse , eta asper . Haur da oraico presuna gazten deliberamendua , haur da hequen gogoa : eta haur da adinean beçala , gaiheracoan ere gazte içai-tea , eta azquen finean , fin gaitz eguiteco pefilean iartcea .

Baldin bacina esperantçatan , hemendic vrthe baten buruan erdiesteco iaun handi batenganic , cebait carguedo errenta , eziliçateque erhoqueria handia , bitartean , an arteraihoco , demboran , iaun haren contra ibiltcea ? Bada are da handi agoa guc eguiten duğun erhoqueria . Ceren çuc nahi duçu hemendic vrthe baten buruan , edo guehi-agoren , ceure çahartcean ondu , çuc nahi duçul orduan Iaincoarequiti adisquidetu , eta haren ganic anhitz fauore , eta garacia erdietsi ; eta ala oaisia bitartean , an arterainoço dembora guztian , ceure gaztetan nean , Iainco haren contra gabiltça , ha-requin etzal çara , eta etzal beçala anhitz bide gabé eguiten dioçula , bicitcen çara . Ha cer bi dea eta moldea , cer lausenga era balacua , haren ganic çahartcean , endreçu içaireco , nahi duçunaren erdiesteco .

## PENITENCIA LYÇATCEN DVENAZ 175

